



Que se entere todo el mundo

Análisis cualitativo de la respuesta del entorno
ante casos de violencia machista

Andoain 2022



Sortzen 
consultoria s.l.



*Euskadi,
auzolana*



BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Mundu guztiak jakin dezala.
Inguruneak indarkeria matxistari eman beharreko erantzunaren azterketa kualitatiboa

“Zenbaitetan pentsatu izan dut:

oihu egingo dut eta denek jakin dezatela.

Jakin dezatela hain ona, hain ona, ez dela.

Ez zela uste zuten bezain jatorra.

Egin zidan guztia jakin dezatela.

Ez dela loreekiko gizon erromantikoa.

Baina ez duela merezi pentsatzen dut jarraian...

Uste dut neu epaituko nautela,

kalean begi txarrez ikusiko nautela,

ziur ote nagoen galdetuko didatela,

ez ote dudan irudimen handiegirik...

Orduan, isildu egiten naiz.

Eta gero, kalean ikusten dudanean, neuk baztertu beharra daukat.

Orduan, oihu egin nahi dut berriro.

Eta holaxe nabil, gorabehera horiekin”.

Emakume elkarrizketatuen testigantzak

Edukia

LABURPENA	4
AURKEZPENA	5
FITXA TEKNIKOA	6
SARRERA	8
1. ESPARRU TEORIKOA: BIKTIMEI ERREPARAZIOA EMATEKO IKUSPEGIA	11
1.1. Zer kalte konpondu behar diren biktimengan	11
1.2. Bigarren mailako biktimizazioa	12
1.3. Ingurune soziala indarkeriaren bideratzaile edo arintzaile gisa	15
1.4. Birbiktimatzen duten mito batzuk	16
1.5. Biktimek dituzten arazoak bizi duten indarkeria hitzen bitartez adierazteko....	18
1.6. Bizirik iraun duten emakume biktimen narratiba	21
1.7. Emakumeen parte hartzea erreparazio prozesuetan	23
1.8. Biktimen erreparazioaren ardatza	25
2. ANDOAINGO TESTUINGURUA	28
3. LAN METODOLOGIA	33
4. EMAITZAK	35
4.1. Emakumeen eta euren ingurunearen narratiba desberdina	35
4.1.2. Narratiba mina eta amorrua denean.....	36
4.1.3. Narratiba zaugarritasunetik abiatzen denean.....	41
4.1.4. Narratiba feminismitik eta laguntza kolektibotik egiten denean.....	43
4.2. Narratiben analisia	48
4.2.1. "Ni ez naiz biktima bat"	48
4.2.2. "Ahobero bat naiz edo burua galtzen ari naiz"	52
4.2.3. "Lotsatu eta bakartu egiten naiz; kontrolatu eta isolatu egiten nau"	53
4.2.4. "Nire arazoak dira, ez dut beste inor tartean sartu nahi"	54
4.3. Ingurunearen eta ingurunearekiko bizipena	56
4.3.1. "Lagundu egin zidaten, baina ez genuen gaiari buruz hitz egiten"	56
4.3.2. "Lagunek esan zidaten zer gertatzen ari zen"	57
4.3.3. Auzoko ingurunea	59
4.4. Erakundeen laguntza	60
5. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK	62
5.1. Ondorioak	62
5.2. Gomendioak	64
ERREFERENTZIAK	68

LABURPENA

Indarkeria matxistaren biktimei erreparazioa emateko politikak garatu behar dira, eta ingurune hurbiletik egin behar da hori. Udal politikak dira zeregin horretan modurik onenean ardura daitezkeenak. Horretaz konbentzituruta, Andoaingo Udaleko berdintasun arloak ikertu nahi izan zituen emakumeek euren ingurunean izandako bizipenak, bikotekidearekin pairatutako indarkeria-egoeraren berri ematen dutenean. Ezagutza hori aurrera eraman daiteke isilarazita egon den informazio bat argitara ateraz, ikusitako erasoen lekukotasuna emanaz edota salaketak jarritz.

Isiltasuna apurtzeak, askotan errepikatutako kontsigna bat izateaz gain, esan nahi du emakume biktimen barne mugimendu bat egotea eta kanpo erantzun bat ematea, eta hori beti ez da erraza, ez batzuentzat ez biktimengandik hurbil daudenentzat, ez maite dituztenentzat ez lagundu nahi dietenenentzat.

Biktimak errudun egiten dituzten eta erasotzailea bere erantzukizunetik salbuesten edo zaintzen duten narratibak oso zabaldua eta errotuta daude biktimen eta, oro har, herritarren kontzientzian. Erasoa jasan duena familiaren edo lagun taldearen parte denean, sinesgaiztasuna gainditu behar da zerbait egiten hasteko eta biktimari laguntzeko, harentzako espazio seguruak sortuz.

Biktimaren narratibaren inguruan gauza asko daude desegituratzeko, baina biktimek ezin dute lan hori egin; herritarrek euren gain hartu beharreko eta erakundeetatik bideratu beharreko konpromiso bat da. Azterlan honetan, lehenik eta behin, emakumeen narratibak jaso dira, proposamenak egiteko eta, horrela, Andoain emakumeentzako udalerrri seguruagoa izan dadin lortzeko; eta, era berean, indarkeria matxista bere adierazpen guztietan arbuiatzeko konpromisoan sakontzeko.

AURKEZPENA

Andoaingo Berdintasun arloak azterlan hau egiteko duen interesa, emakumeentzako espazio seguruak ekarriko dituzten tokiko politika publikoak sortzeko beharrea datza. Segurtasun horrek komunitatetik eta biktimaren ingurune hurbiletik etorri behar du. Horretarako funtsezkoa da jakitea nola erlazionatzen diren ingurune horrekin, biktimak direla jakinarazten den momentutik eta, jakitea, halaber, inguruneak nola erantzuten dion horri.

Andoaingo Udalean erreparazioaren gaia nola zehaztu jakiteko hausnarketa bat eta lan bat egin nahi izan ditugu, emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitza bat eraikitzeko politiketatik abiatuta. Azterketa hau beste urrats bat da. Emakumeek indarkeria matxistari buruz egiten dituzten narratibak ikertzeraz garmatza horrek, baita une kritikoez haraindiko politikak lantzeraz ere, laguntza aktibatzen denean, alegia. Protestaren pankarta jaso ondoren, zer egin behar dugu tokiko erakundeok? Galdera horrexek argitu du ikerketa hau.

Udalean, emaitzek animatu egiten gaituzte lanean jarraitzeraz, biktimei erreparazioaren inguruko lan ildoak zabaltzeko; helburu horrekin, ingurune horiexek hartu ditugu erreferentzia-multzotzat, isiltasunetik eta salaketatik babes eta sostengu sareak ehuntzeko konpromisora igaroz, sare horiek aukera emango baitiete emakume biktimei egoera hori gainditzeko eta bizitza eta askatasuna berreskuratzeko.

Azterlan hau aurrera atera zedin ahalegindu ziren parte hartzaile guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Batez ere, beren esperientziak berri behar izan dituzten emakumeei, zinez uste baitugu horrek lagundu egingo diela esperientzia horiek beste modu batez ikusten, sendatze espazioak lagun. Eta beren lanari buruz hausnartu zuten profesional guztiei, benetan uste baitugu orri hauek erabilgarri gertatuko zaizkiela beren zereginetan.

Halaber, eskerrak eman nahi dizkiogu Sortzen ikerlari taldeari, hartutako konpromisoagatik.

Andoaingo Udaleko Berdintasun Arloa
2022ko abendua

FITXA TEKNIKOA

Ekintzaren eskatzailea	Andoaingo Udala Berdintasun Arloa Emakunderen laguntzarekin
Ekintzaren xedea	Azterlana: Indarkeria matxistaren biktimek ingurunearekin duten harremana, eta, errealitate hori publiko egitean inguruneak ematen duen erantzuna.
Egindako produktuak	Ikerketa-txostena gaztelaniaz
Izenburua	<i>Mundu guztiak jakin dezala</i> Inguruneak indarkeria matxistari eman beharreko erantzunaren azterketa kualitatiboa
Parte hartzaileak	<ul style="list-style-type: none">• Genero indarkeriaren biktima diren emakumeak, beren egoera ezagutarazi zutenak edo ezagutarazi zena.• Emakume biktimen lagunarteko ingurunea• Udal teknikariak• Tokiko elkarteetako emakumeak
Erabilitako teknikak	<ul style="list-style-type: none">• Dokumentuen berrikuspena• Elkarrizketa pertsonalak, presentzialak eta online• Talde fokala emakume biktimekin
Ebaluazioaz arduratzen den taldea	Sortzen Consultoría <ul style="list-style-type: none">• Koordinazioa eta azken txostenaren idazketa: Norma Vázquez• Landa-lana eta erredakzioko laguntza: Estibaliz Linares, Johana Muñoz, Ainhoa Al Rifaie eta Irene Bazannezi• Laguntza teknikoa: María Domínguez eta Maite San Epifanio
Lana egiteko data	2022ko otsaila-abendua

Mundu guztiak jakin dezala.
Inguruneak indarkeria matxistari eman beharreko erantzunaren azterketa kualitatiboa

SARRERA

Indarkeria matxista arazo estrukturala da, nahiz eta horren ageriko adierazpenak askotariko eraso pertsonalak izan; garrantzi eta interes sozial handiko gaia izan arren, bikote arazo gisa, familiaren disfuntzio gisa edo/eta bizitza pribatuaren arloko gai gisa azaldu eta jorratu nahi izan da; ikuspuntu horiek guztiak okerrak dira, baina arrastoa utzi dute biktimei arretea emateko politika publikoetan. Lege eta politika publikoen arloan aurrerapenak egin badira ere, biktimei diren emakumei arretea behar bezala emateko bide luzea falta da oraindik, beharrezkoa baita indarkeria-kasu bakoitzari ikuspegi estruktural batetik heltzea.

Eta nola lortzen da hori? Funtsezko urrats bat ingurunearen konpromisoa da, halakotzat hartuta familia nuklearra (biktimarena zein erasotzailearena), lagunarteak, lankideak, etxebizitza partekatzen duten pertsonak, auzotarrak, etab. Zerbait gaizki dabilela susmatzen duten edo uste duten baina galdetzera ausartzen ez diren (are gutxiago erantzuna denean "ez da ezer gertatzen") pertsona guztiek, zera ikasi behar dute: biktimei isiltasuna hausteko eskatzen diegun bezala, haiei ere eskatzen diegu biktimei behar besteko konfiantzaz sentiaraz ditzatela isiltasuna hauts dezaten, entzun egingo baitiete eta sinetsi egingo baitiete.

Eta lorpen horrek politika publikoen jomuga izan behar du, ingurune hori interpelatuko duten programa espezifikoak garatu behar dira, eta, laguntza-sare instituzionalak sortzeaz gain, biktimei guztientzako babes iraunkorreko sare sozialak eta indarkeria gaitzesteko sareak ere sortu eta sustatu behar dira.

Indarkeria matxista gertatzen deneko ingurune soziala garrantzitsua da, bai indarkeria hori prebenitzeko bai emakume biktimei eragindako kaltea konpontzeko. Prebentzioari dagokionez, emakume biktimei baten gizarte ingurunea akuilu edo oztopo izango da hura indarkeriatik ateratzeko orduan. Izan ere, bizipena indarkeria matxistaren esperientzia gisa ikusarazten edo barneratzen lagunduko dio; edo, bestela, erantzukizunak biktimei berari egozteko justifikazioak asmatuko ditu, indarkeriazko esperientzia bera ukatuz edo albo batera utziz.

Erreparazioari dagokionez, garrantzitsua da zera kontuan hartzea: indarkeriaren biktimei —alde batera utzita erasotzaileak izan ditzakeen urrun egoteko aginduak eta zigor penalak, zeinek haren gizarte eremutik urrunduta eduki dezaketen aldi baterako—

espazio horretan bertan bizitzen jarraitu beharko dute etorkizunean (baita orainaldian ere, salaketarik edo zigor penalik egon ezik), eta horrek etengabeko birbiktimizazioa ekarriko dio biktimari (erasotzailearekiko gaitzespen sozialik ez badago, eta, horren ondorioz, espazio eta harreman sozial seguruak sortzen ez badira).

Gainera, nahi dena, zigorgarria dena eta arbuiagarria dena ilustratzeko adibide gisa balioko duten erreferentziak eraiki behar dira, tokiko narratibak sortuz; izan ere, diskurtso sozial, orokor eta estrukturalen ikuspuntutik, tresna pedagogiko eta tresna praktikoko gisa baliagarriak izan daitezke, eta maila praktikoko batean erakutsi zer esan nahi duen erasotzailea arbuiatzeak eta biktima babesteak.

Gune eta esperientzia babesle horiek eraiki ahal izateko, beharrezkoa da aztertzea zer elementuk oztokatzen dituzten indarkeria matxistaren aurkako eta gizon erasotzaileen aurkako jarrera sozial argiak hartzea, eta nola islatzen diren elementu horiek hurbileko espazio sozialetan; izan ere, andoaindarrek, oro har, indarkeria matxistaren gaitzespenari buruzko eta "Zero Tolerantzia"ri buruzko diskurtso oso barneratuta daukatela baieztatu baitezakegu.

Eguneroko eta gertuko eremuetan (auzoen, lankideen, senideen eta lagunaren arteko harremanetan), ordea, diskurtso hori eta diskurtso horren onarpena aldatu egiten dira, eta pertsonak toleranteago bihurtzen dira erasoekiko. Horren ondorioz, gainera, biktima eta bizirik atera diren emakumeek beren segurtasun eremu nagusiak galdu egiten dituzte, eta biktima bihurtu daitezke berriro, ez bakarrik haien inguruneak justifikatzen duelako bizi izan duten indarkeria, baizik eta bertan topatzen dituzten kontraesanengatik: alde batetik, indarkeria gaitzesteko diskurtso sozial, estruktural eta instituzionala; eta beste alde batetik, haien itxaropenei erantzuten ez dien errealitate bat.

Errealitate hori hobeto ezagutzeko asmoz, Andoaingo Udaleko Berdintasun Arloak azterlan kualitatibo bat egitea proposatu zuen, indarkeriaren biktimen beren bizipena agerian jarri ondoren gertuko ingurunearekin izan duten esperientzian sakontzeko. Zer erantzun lortzen dute? espero al zuten? erantzun horiek animatzen al ditu? Gaia planteatu bezain laster sortzen ziren galderetako batzuk horiek dira. Hainbat erantzun garrantzitsu jaso dira, baina gai hori apenas hasi den jorratzen, zalantzarik gabe, eta sakontzen jarraitu behar da, tokiko eremuan gertatzen diren indarkerien aurrean zero tolerantzia egia bihurtu dadin.

Mundu guztiak jakin dezala.
Inguruneak indarkeria matxistari eman beharreko erantzunaren azterketa kualitatiboa

1. ESPARRU TEORIKOA: BIKTIMEI ERREPARAZIOA EMATEKO IKUSPEGIA

Erreparazioaren printzipioa biktima guztiek (baita indarkeria matxistaren biktimek ere) jasandako kaltearen aurrean erakundeek antolatutako erantzun soziala jasotzeko duten ESKUBIDEA da; eskubide hori biktima izate hutsagatik eskuratzen da, eta erreparazioaren printzipioak zeharka egon behar du presente erakunde publikoen prozedura eta jarduketara-maila guztietan (EUDEL, 2021).

Erreparazio ikuspegia emakumeen narratibetan aplikatzeak, ingurunearen erantzunari buruzko eta ingurune horrek hori bizi duen moduari buruzko lehen galdera dakar: zer kalte konpondu behar da? Kalte orokor bati buruz hitz dezakegu?, edo, konpondu egin beharko al da horrelako bizipen mingarri bat publikoki ezagutaraztean hondatzen den autoirudiaren osagaia? Ikuspegi horretatik indarkeria gutxi aztertu bada ere, galdera horiei erantzun batzuk aurkitzen saiatuko gara.

1.1. Zer kalte konpondu behar diren biktimengan

Arévalok (2010) adierazi duenez, erreparazio prozesuek **laguntza psikosoziala** izan behar dute ardatz; laguntza horrek —sinbolikoki eta materialki— hurbileko zirkuluek eta erakundeek berek erreparazio indibidualako prozesuari ematen dioten berme sozial gisa jarduten du. Alde horretatik, beharrezkoa da biktimen diskurtsoa eta bizipenak legitimatuko dituzten estrategiak eta laguntasunak antolatzea, biktimek euren bizipenei buruz kontatzen dutenari eusteko.

Estébanezek dioenez (2021), prozesu indibidual horietan oso garrantzitsua da emakumeek izena jartzea bizi izan dituzten indarkeria ikusezin, psikologiko eta sozialei, eta zehazki, birbiktimizazio prozesu guztiei. Ikerlan honetan egiaztatu ahal izango duzue, indarkeriak ez da nahitaez amaitzen bikote harremana amaitzen denean; izan ere, harreman horri eusten dioten esturturek eta hura normalizatzen duten narratibek egoera hori betikotzearen alde egiten jarraitzen baitute; horregatik, ezinbestekoa da indarkeria iraunarazten duten mekanismoak biktimak berak aztertzea, bere oneratzeko prozesua gidatzeko gai izan dadin. **Biktimaren errua** eta **erantzukizuna** landu behar direla azpimarratzen du egileak, biak funtsezko mekanismoak baitira desberdintasunari eusteko; beraz, aztertu eta birkokatu behar dira, diskurtsoak legitimatzeko eta emakume biktimen bizipenak errugabetzeko.

Erruari buruzko lanari, Celyk (2019) biktimaren sinesgarritasuna lantzearen garrantzia gehitu dio. Askotan, indarkeria matxistatik bizirik atera diren emakumeek, zalantzan jartzen dituzten edota umiliatu egiten dituzten diskurtsoak entzun behar izaten dituzte; horrek arrasto psikiko traumatikoak uzten ditu haien gorputzetan eta memorietan, kaltea ez konpontzeaz gain, kalte hori eta indarkeria bera ukatuak direlako. Hortaz, biktimak euren gorputzaren memoriatik suspertzea beharrezkoa da; horregatik, iraunkorrak diren prozesu terapeutikoak eta entzute prozesuak nahitaezkoak dira, suspertu egin daitezzen.

Indarkeria matxista jasan duten emakumeen bizipenak ulertzeko, argi dago esparru konplexuak eta holistikoak erabili behar ditugula. Inguruan duten testuinguruak — gertukoenetik hasi eta instituzionaleneraino— funtsezkoa da indarkeriazko harreman edo eraso batetik ateratzeko; bestela, litekeena da harreman horiek betikotzea. Beraz, emakumeengandik hurbilenik dauden gizarte sareak eta taldeak biktimei eta bizirik atera diren emakumeei laguntzen dieten eragile gisa uler daitezke; aitzitik, indarkerien mekanismo koertzitibo eta sostengarri gisa ere uler daitezke.

Biktimei erreparazioa emango dien lan ildoan sakondu nahi badugu, funtsezkoa da indarkeriaren dinamikak ulertzea bikotea batuta edo elkarrekin bizi zenean baino haratago joanda, eta emakumeek indarkeriaren ondorioz hain zuzen banantzea erabakitzen dutenean gertatzen den egoeran sakontzea. Horrelako erabaki bat hartzea prozesu korapilatsua da eta beren bizitzetako ziklo bat ixtea ekarriko die; hala ere, erasotzailearekin eta ingurunearekin harremanetan egoteko modu berriak irekiko ditu horrek, eta, ziurrenik, biktimen arretarako erakunde politikekin topo egitera eramango ditu (lehen aldiz beren bizitzan) eta prozesu berri bat hasiko da (askotan biktimak eurak biktimizatzen dituzten elementuekin).

1.2. Bigarren mailako biktimizazioa

Genero indarkeriatik sendatzeko eta suspertzeko prozesua zaila da, ibilbide konplexua da, ez da lineala eta bai iraupen luzekoa; biktimak ibilbide hori hainbat zerbitzutan zehar egin beharko du, eta zerbitzu horietan bere istorioa kontatzera eta berpiztera behartuta egongo da, orientabideak eta balorazioak jasoko ditu eta, zenbaitetan, baita presioak ere (ezezagunak diren baina agintea duten pertsonengandik); bizipen traumatiko edo nahigabeak etengabe gogoratu beharko ditu... Haien suspertzea oztopatzeaz gain, hainbat ikerketak diote prozesu hori biktimizazioa bera bezain negatiboa izan daitekeela, eta bigarren mailako biktimizazio bat eragin dezakeela.

Alde horretatik, askotan, biktimei arreta ematen dieten profesionalek estereotipoak eta aurreiritziak errepikatzen dituzte. Gainera, bizirik atera diren emakumeak beren istorioa behin eta berriz kontatzera behartzen ditu sistemak, gutxitan koordinatuta egoten diren laguntza-prozesu desberdinen beharrak direla-eta, eta biktimen beharrak gehiegi kontuan hartu gabe; azkenean, landu gabeko errepikapen efektu bat gertatzen da, hau da, gertakarien kontaketa eskatzen da, bai, baina biktimen psikean eta kontaketa eraikitzeke esperientzian duten eragina kontuan hartu gabe. *Bigarren mailako biktimizazio hori:*

...biktimaren eta gizarte erakundeen arteko (gizarte zerbitzuak, osasun zerbitzuak, komunikabideak, zerbitzu juridikoak, etab.) harremanetatik eratorria da; izan ere, batzuetan, biktimari arreta txarra edo desegokia ematen baitiote (Gutiérrez, Coronel, & Andrés, 2009, 50. or.)

Eta egile horiei jarraiki, honela definitu dezakegu:

Delituren bat (batez ere sexu abusuaren delitua) jasan ondoren, biktimek behin eta berriz agertu behar izaten dute erakunde judizialen aurrean, eta hainbat eta hainbat aldiz eman behar dute beren testigantza, biktimari psikologikoki eta emozionalki modu sakonagoan eta traumatikoan kalte eginez (Gutiérrez, Coronel, & Andrés, 2009, 51. or.).

Kontsultatutako hainbat iturriren arabera —eta ikerketa-taldeak emakumeei egindako elkarrizketa ugarien arabera—, sistema judiziala da berriz biktimizatzeko arrisku handiena sortzen duena. Jurisprudenziaren ustezko neutraltasun generikoak biktima behartzen du hura bera zalantzan jartzen eta deslegitimatzen duten egoerak zehaztera; egoera horiek min emozional handia eragiten diote eta prozesu judiziala esperientzia oso kaltegarri bihurtzen dute biktimentzat, ez bakarrik egituratu behar dituzten galderengatik eta kontakizunengatik, baizik eta beren erasotzaileekin epaitegiko korridore eta aretoetan izan ditzaketen topaketengatik ere (Gutiérrez, Coronel, & Andrés, 2009, 50 or.). Gainera, Olaizolak dioenez (2010), prozesu horietan hartutako erabaki askok —adibidez, adingabeen zaintza erretiratzeak edo banantzeagatiko epaietan partekatutako zaintzak mantentzeak— indarkeria psikologikoa eta birbiktimizazioa eragiten dituzte.

Poliziaren esku hartzeak ere garrantzitsuak dira biktima diren emakumeak suspertzeko prozesuetan: polizia-jarduera positibo batek lagundu egiten die biktimei (erakundeek babestuta sentitzen direnez), eta beren buruan segurtasun handiagoa dutenez, azkarrago jartzen dira sendatze bidean, eta batez ere, haien bizipenak (tratu txarren emailak eta inguruneak gehien azpimarratzen duten alderdietako bat) sinesgarritasuna berreskuratzen du.

Osasun arloan, osasun zentroetara edo ospitaleetara jotzen duten emakume askok ondoez-motaren bat daukatela egiaztatu da, baina askotan oharkabean pasatzen zaie profesionalei, indarkeriaren adierazleak eskura dituzten arren. Honelako gaitzei buruzko susmo sendoak daudenean, ikuspegi biologizistak, lan kargak edo osasun langileen arretarik ezak eragotzi egiten dute gaitz horien kausetan sakontzea; are gehiago, emakumeak zalantzakor eta nahasita sentiarazten dituzten egoerak sortzen dira (Toledano-Buendía, 2021; Aranda et. Al., 2014).

Azkenik, Toledano-Buendía (2021) eta Boledonek (2014) adierazten duten bezala, **ikuspegi interseksional batetik begiratuta**, garrantzitsua da kontuan hartzea emakume migratuetan edo/eta desgaitasun funtzional, sentsorial eta, batez ere, mentala duten emakumeetan, indarkeria arrazistak eta kapazitista instituzionalak gertatzen direla, zeinen jatorria baita kultura-mitoen, hizkuntza-oztopoen eta eragozpen arkitektonikoen iraunkortasuna, bai gizartean bai erakunde eremuan.

Birbiktimizazio prozesuak emakumeak bizi diren edozein arlotan gerta daitezke, baina agerikoagoak dira emakumeen **zirkulu sozialetan**, hurrengo orrialdeetan ikusiko dugun bezala; izan ere, horietan biktimari buruzko iruditegi bat erreproduzitzen da, biktimari buruzko estereotipo, mito eta diskurtsoen bidez haren erruduntasuna edo/eta sinesgarritasunik eza nabarmentzen dituena. Emakume biktimei eta biziraun dutenei egindako elkarrizketetan, ohikoa da haiei entzutea esaten horrelako gauzak entzun izan dituztela beren ingurunean: "ez ote zenuen zuek zeuk zerbait egingo hark horrela erantzun zezan?", "banekien zer ari zen gertatzen, baina inoiz ezer esan ez zenuenez...", edo "agian ez da hainbesterako eta zuk puztu egin duzu". Horrek esan nahi du biktima bizi dela ingurune erlazional batean, non biktimari berari errua egozten zaion, non indarkeria matxista hutsaltzen den, eta, non gizarte kalteak eragiten dituzten diskurtsoak sostengatzen diren, eta ez soilik maila pertsonalean edo harreman intimoetan gertatzen direnak (de la Cuesta, 2018; Aranda, et. Al., 2014).

Ilido horretan, Vázquezek (2017) dio, ze, senideen laguntzarik ezak biktimari hainbeste eragin diezaiokeela ezen egoerari ezin baitio bere kasa eutsi, egileak "omisiozko indarkeria kolektiboa" deritzona jasatera iritsiz (2017:49): "indarkeria operatibo eta sistematikoa da, hain estrukturala, ezen **inork ez baitu bere gain hartzen horren ardura**, baina kalte emozionalak eta ingurumen eta koertzio biktimizazio bikoitza sorrarazten ditu, eta hain da ikusezina, ezen, biktimak berak ere ez baitu onartzen, bere baitan sentitzen badu ere".

Gainera, Aranda et- Al. (2014) egileek komentatzen dutenez, familia berak ere biktimizazio hori jasan dezake, eta bikotearen edo bikotekide ohiaren errepresalien beldurrez bizi. Adingabeekin gertatu bezala, biktimaren familiak ere indarkeria jasan dezake, eta emakumeak berak sentitzen du bera dela indarkeria horren erantzule. Bestalde, hori da erasotzaileak biktimari sentiarazi nahi dion emozioa, indarkeria bikario horrekin.

Laburbilduz, indarkeriari aurre egiten dion emakumeak ez du bere garapen pertsonala soilik kaltetzen; aitzitik, bere sare sozialak eta bizi den ingurune orokorra inplikatzan dituzten harreman aldaketak ere jasaten ditu, eta horrek askotan eramaten du babesgabetasun eta bakardade egoera batera. Sinesmen pertsonaletan eta erruduntasun sentimenduetan izandako aldaketek, besteak beste, areagotu egiten dute jasandako indarkeriaren esperientzia, eta areagotu egiten dituzte jasandako kalte emozionalak eta traumak. Indarkeria horiek emakumeen memorietan eta gorputzetan integratzen dira, haien eguneroko bizitzetan kronifikatzen dira, eta ez dago erantzukizun kolektiborik bera aterpetzeko eta sendatzen laguntzeko.

Esandako guztiak argi adierazten digu erakundeek eta zerbitzu publikoek sentsibilizazio, prestakuntza eta babes neurriak hartu behar dituztela, biktimizazio bikoitz hori gertatzea edo/eta iraunaraztea saihesteko.

1.3. Ingurune soziala indarkeriaren bideratzaile edo arintzaile gisa

Iturbide, Amigot & Covas (2021) egileek diotenez, erasotzaileek biktimaren ingurune soziala erabiltzen dute beren indarkeria erabiltzen jarraitzeko. Erasotzaileek beren inguruneetan (eta ingurune horien bitartez) mito eta istorio faltsuak igortzen dituzte, emakumeen ahotsa baliogabetzeko eta deslegitimatzeko eta pairatzen duten indarkeriaren errua egozten dieten diskurtso sozialak eratzeko.

Istorio faltsuak era askotakoak izan daitezke, baina "ama gaiztoaren mitoari" dagokiona da zabalduenik dagoena. Ezkutuko indarkeria hau oso kaltegarria da ama biktimentzat, biktimak bizi izan duena sozialki baliogabetzen laguntzen duelako eta bere ingurune hurbilean babesik ez aurkitzen ahalbidetzen duelako, hori guztia emakume horien autoestimuan bereziki garrantzitsua den ama-bizipenari lotuta. Erasotzailearen familiak edo lagunek emakumeei buruzko mito eta ideia horiek helarazten badituzte, ingurune sozialak indarkeriaren bideratzaile bihur daitezke, eta ingurune bortitzak sor ditzakete emakumeentzat.

Gainera, emakumeei segurtasunik eza eta deserosotasuna eragiten dieten guneak sortu nahian, erasotzaileak emakumeak maiz egoten diren lekuetara joaten dira, hala nola, emakumeak maiz erabiltzen duen taberna, lehen presentziarik izan ez zuen eskolako gurasoen txata, parkea, lehen joaten ez zen familia-bileretan, eta abar. Hori jakinda, jarrera horiek ingurunean duten gizarte babesa funtsezkoa izango da indarkeria horiek eragozteko edota hausteko.

Bestalde, Varelak (2017) **erantzukizun zibil eta feministari buruz hitz egiten du maila komunitario eta estruktural batean**, genero indarkeriaren aurkako jarrera irmo eta argiak islatuko dituzten diskurtso sozialak sortzeko orduan, indarkeria matxista normalizatzeraz eta horren aurka ez jardutera eramaten duten mekanismo sozial eta instituzionalak ugaritzea saihestuz —hala nola *simulakroaren kultura* (indarkeriari heltzeko estrategiak eta mekanismoak aldatzen dira, baina oinarri ideologikoa ez da aldatzen) eta *berdintasunaren irudipena* (berdintasun eraginkorra jada lortuta dagoen ustea)— edo *desberdintasunaren beloa* betikotzea, desberdintasuna sortzen edo/eta mantentzen duten faktoreak ez aipatuz edo/eta ikusezin bihurtuz.

Egilearen arabera, emakumeen aurkako indarkeria gai politikoa da eta erakundeetan errotuta dago; beraz, aldaketak estrukturala eta sakona izan behar du, eta estrategia politiko espezifikoak inplikatu behar ditu. Horretarako, oso garrantzitsua da erakundeek sentsibilizazio eta prebentzio kanpainak abian jartzea, eta profesionalek indarkeriari buruzko prestakuntza eskuratzea mito eta uste faltsu guztiez harago, zeinak jarraian garatuko baititugu, horiek izanik gehien erabiltzen direnak.

1.4. Birbiktimatzen duten mito batzuk

Gizartean oraindik ere indarkeria matxistaren inguruko mitoak daude, eta, bereziki, indarkeria hori pairatu duten emakumeen aurkakook. Bosch-Fiol & Ferrer-Pérez egileen azterlanaren arabera (2012), mitorik ohikoenak genero indarkeriaren marjinaltasunarekin lotutakoak dira —kasu zehatz eta isolatuak direla sostengatzen dute gehienbat—; beraz, ohiz kanpokotzat eta ezohikotzat hartzen dituzte, arazo unibertsaleko larritasuna ez aitortzearren. Gauzak horrela, honelako diskurtsoak oso ohikoak dira: "genero indarkeria bakarrik gertatzen da herrialde azpigaratuetan", "familia desegituratuetan" edo "arazoak dituzten pertsonen artean".

Ondoren, tratu txarrak ematen dituztenak errudunak izatetik libre uzten dituzten hainbat mito komentatzen dira, haien bizitzako faktore zehatzak edo ohitura pertsonalak aipatuz; adibidez, iradokiz —modu esplizituan edo ez hain esplizituan— egoera pertsonal horiek bultzatu zituztela indarkeriazko jokabideak sostengatzera. Hemen oso ugariak dira erasotzaileak haurtzaroan jasandako tratu txarrei buruzko kontakizunak, hau da, erasotzaileak "bere familian ikusitakoa errepikatzen du soilik", "tratu txar emaleek substantziak, alkohola eta drogak kontsumitzen dituzte", "erasotzaileak gaixotasun mentalak dituzte", edo "jeloskortasuna da genero indarkeriaren eragilea".

Halaber, asko dira genero indarkeriaren biktimengan oinarritutako mitoak; mito horien helburua da indarkeriaren errua emakumeari leporatzea eta erasotzailea erantzukizun orotatik aske uztea, biktimaren ezaugarri pertsonalen bat "indarkeria eragiten duen" faktore bat balitz bezala edo biktimak indarkeria hori onartuko balu bezala. Esparru horretan kokatu behar dira honelako baieztapenak: ezaugarri jakin batzuk dituzten emakumeek indarkeria erakartzen dute", "genero indarkeria jasaten badute, biktimek zerbait egin dute indarkeria hori probokatzeko edo merezi izateko", edo "harreman hori uzten ez badute, zerbaitengatik izango da" (Bosch-Fiol & Ferrer-Pérez, 2012).

Beste mito mota batzuek ordenamendu juridikoari egozten diote erantzukizun hori, honako hau adierazita: "egungo legeek bikote harremanetan gertatzen diren gatazka normalak kriminalizatzen dituzte, genero indarkeriatzat hartzen direlako", "salaketa faltsuen masifikazioa" azpimarratu egiten da, edo "erasotzaileak sistemaren benetako biktima dira, legeak babesten ez dituelako". (Bosch-Fiol & Ferrer-Pérez, 2012; Varela, 2017).

Beste mito eta sinesmen batzuek indarkeria hutsaltzen dute edo haren larritasuna minimizatzen dute, indarkeria egotea bera zalantzan jarri ordez. Adibidez, honako

baieztapen hauek egiten dira: "indarkeria psikologikoa ez da fisikoa bezain larria", "genero indarkeria oso fenomeno puntuala da", edo "gizonak eta emakumeak modu berean dira bortitzak bikote harremanaren barruan" (Bosch-Fiol & Ferrer-Pérez, 2012).

Varelak (2017), bestalde, gizartean ezartzen diren eta indarkeriak emakumeengan dituen eraginak larriagotzen dituzten diskurtso neomaxistez hitz egiten du, bereziki "gurasoen alienazio sindromea" edo "zaintza partekatua banantze eta dibortzio prozesuetan gizonen botere ariketa gisa" bermatzen dituzten diskurtsoen kasuan. Egileak dioenez, **kontakizun horiek emakumeen gorputzetan eta imaginario kulturaletan ezartzen dira, eta, azkenean, indarkeria sozialeko zikloei eusten diete.**


Mito eta sinesmen faltsuen aniztasun horren helburua da biktimei buruzko kontakizun bat sortzea —gehiegizkoak edo gezurrezkoak direla adieraziz—, eta aldi berean, indarkeria matxistaren arazoaren garrantzia minimizatzea. Helburu partekatua lortu nahian atzeraelikatu egiten dira: emakumeen aurkako indarkeria matxista benetan den fenomeno sozial eta unibertuala ukatzea, indarkeria "bikotearen arazo pertsonaltzat" edo "zorigaitzoko gertakari isolatutzat" hartuz eta genero desberdintasuna ardatz duen indarkeria mota bat dela ukatuz, eta, ondorioz, harremanari buruz hitz egiten du, eta ez gertakari batzuei buruz soilik; horregatik, mito horiek guztiek azpimarratzen dutena zera da: emakumeen aurkako indarkeria hori gizartean existitzen diren mito ugarietako bat baino ez dela, eta ez dutela legeria edo arreta espezifikorik behar (Bosch-Fiol & Ferrer-Pérez, 2012).

1.5. Biktimek dituzten arazoak, bizi duten indarkeria hitzen bitartez adierazteko

Genero Indarkeriarako Gobernuaren Ordezkaritzak 2019an ateratako azterlanaren arabera, biktimek batez beste 8 urte behar izaten dituzte indarkeria-egoera hitzez adierazteko edo/eta salatzeko. Euskal Autonomia Erkidegoan, batez besteko hori **11 urte eta 7 hilabetera igotzen da.**

Azterlan horrek berak identifikatu du zergatik atzeratu zuten biktimek beren egoera hitzez adierazteko eta salaketa jartzeko erabakia, edota hurrengo taulan agertzen diren zerbitzu espezializatuei laguntza eskatzekoa. Arrazoi horiek zerikusia dute biktimek bizi dituzten egoerekin, indarkeriatik kanpo bizi daitekeenik imajinatzen ere uzten ez dieten zailtasun bihurtzen baitira. Funtsezkoa da arrazoi horiek guztiak ezagutzea eta aztertzea joan-etorriko prozesuak ulertzeko, hau da, haien erabakien anibalentzia ulertzeko; izan

ere, anbibalentzia horrek irmotasuna eragin dezake haien diskurtsoan, baina moteltasuna edo zalantzak haien ekintzetan.




1. taula: Iturria: Genero Indarkeriarako Gobernuaren Ordezkaritza (2019). Genero indarkeriaren biktima diren emakumeek beren egoera hitzez adierazteko behar duten denborari buruzko azterlana.

Taulan ikus daitekeenez, biktima gehienek beldurrari (% 50), erruduntasunari (% 32) eta biktima gisa izan dezakeen sinesgarritasunari (% 13) lotutako faktoreak aipatzen dituzte. Bestalde, gehien bat erreferentzia hauek egiten dira: baliabide ekonomikorik eza (% 28), informaziorik eza (% 21, % 19 eta % 15), eta familia erantzukizunak (% 11 eta % 23).

Indarkeria prebenitzeko funtsezkoa da erasotzailearenganako beldurra eta hark erabiltzen duen indarkeria ezagutaraztean izan ditzakeen erreakzioekiko beldurra. Emakumeak animatzeak beldur ez izatera edo beldur hori izan arren salaketa jartzera, babes sare sendo bat bermatu gabe, haiek berriz biktimizatzea dakar. Eta erasotzaileak badaki hori, horregatik egiten du mehatxu inpunitate osoz, badakielako laguntza-sarea urria dela, bera arduratu da bikotekidea isolatzeaz, eta badaki sareak ezingo diola lagundu luze dirauten prozesuetan.

Deigarria da, halaber, biktimek laguntza eskatzeari uko egitea (% 45); hor nabarmendu behar da gure gizarteak duen autosufizientzia-ideala, zeren, ideal horren arabera, autonomiatzat ulertzen da konpromezuzko loturarik eza, betiere mendekotasun egoera objektiboak eragindakoak ez badira —adingabeak, gaixoak edo adinekoak zaindu beharra—; laguntza eskatzea zigortzen duen ideologia horrek agerian uzten du, hain zuzen, sare komunitarioak indartzeko beharra. Gainera, beste faktore garrantzitsu bat ere badago: biktimak duen zailtasuna bere burua halakotzat onartzeko (% 36).

Azkenik, taulan adierazten denez, emakumeek ez zuten laguntzarik bilatu familiaren eta gizartearen babesik ez zutelako (% 18); eta % 16 familiaren erreakzioaren beldur zen.



2. taula: Iturría: Genero Indarkeriarako Gobernuaren Ordezkaritza (2019). Genero indarkeriaren biktima diren emakumeek beren egoera hitzez adierazteko behar duten denborari buruzko azterlana

Bigarren taula honetan, biktimek zergatik erabaki zuten salaketa jartzea adierazten da, eta erreparazio lanari ekiterakoan kontuan hartu beharreko elementuak azaltzen dira.

Lehenengo bi alderdiek biktimen akidura psikologikoaren maila (% 54) eta erasoeri lotutako akidura-maila (erasoaren ezaugarriak: % 41) zein den adierazten dute. Hurrenez

hurren, indarkeria detektatzeko esku hartze sozial eta polizialaren garrantzia nabarmentzen da, kanpaina mediatikoak barne (% 21, % 9, % 6), eta indarkeria-egoerak hitzez adierazteko edo salatzeke (% 27) ingurunearen babesak funtsezkoa dela azpimarratzen da. Gainera, batzuetan, egoera salatzen dute edo hitzez adierazten dute seme-alabak babesteko (% 30 eta % 36) edota haien egoera ekonomikoak hobera egin duelako (% 1).

Salaketa jartzera animatzeko biktimek ematen dituzten arrazoen erdiek kanpotik jasotzen dituzten laguntzekin dute zerikusia (haien seme-alabak izan, inguruko pertsona esanguratsuak izan edo profesionalak izan). Datu horiek ingurunearen babesak duen garrantzia jartzen dute agerian, behin eta berriz adierazi dugun bezala; eta biktimen narraitibak tesi horiek berresten ditu.

1.6. Bizirik iraun duten emakume biktimen narraitiba

Aurretik aitortutako zailtasun guztiak gorabehera, genero indarkeriaren biktimak erreparatzeko eta sendatzeko prozesu batean, oso garrantzitsua da bizirik atera direnen hizkuntza eta ahotsak berriro gureganatzea. Biktimek indarkeria-egoera pairatzen dutenean, haien ahotsak deuseztatu egiten dira, mendekotasun egoera batean haiek atxikitzeke. Emakumeek zapaltzailearen boterea zalantzan ez jartzeaz gain, zenbaitetan biktimek zapaltzailearen narraitiba sorberritu egiten dute, euren berezko ahotsa eta istorioa galtzeraino. Horra zapaltzailearen lorpena.

Gainera, indarkeriaren, umilazioaren, gizatasunik ezaren eta biktimen segurtasun ezaren eta estimu txikiaren bidez, egileak mezu faltsu bat transmititzen du emakume horiek erabakiak hartzeko duten balioari eta ahalmenari buruz. Phelps (2004), 45 or. Sendaketa- eta erreparazio-prozesu batean, emakumeek beren ahotsak aurkitu behar dituzte berriro, balio dutenaren zentzua berreskuratu behar dute, bai eta emakume trebeak eta ausartak direla aitortu ere (ez bakarrik indarkeriatik atera direlako, baizik eta indarkeriari buru egin diotelako).

Barjolak (2018) honako hau nabarmentzen du: "Kontakizunak beldurrezko kanpaina sistematikoak dira eta helburu espezifiko bat dute: emakumeen gorputza eta jarrerak kontrolatzea eta zelatatzea" (276 or.). Barjolak Alcàsser kasuaren¹ inguruko kontakizuna

¹ Alcàsser kasua: Alcàsser udalerrian (Valentzia) hamalau eta hamabost urteko hiru nerabe bahitu, bortxatu, torturatu eta hil zituzten kasua da.

aipatzen du; izan ere, komunikabideen laguntzarekin, krimenaren alderdi beldurgarrietan jarri da arreta, indarkeria horren kausak edo sinbolismoa kontuan hartu gabe. Kontakizunak biktimen jardunak izan ditu oinarri, helburu hauekin: emakume gazteen jokabidea kontrolatzea, haien artean izua sortzea eta gizonek (emakumeen gorputzen babesle eta kontrolatzaile gisa) gizartean betetzen duten zeregina indartzea.

Komunikabideen eta botere egituren kontakizun hegemonikoa indargabetzen duten esperientziak eta irudikapenak egunerokotasunean txertatzearen garrantzia defendatzen du Barjolak. Kontakizunaren esanahia berriro finkatzea eta narratibaz jabetzea bete beharreko baldintzetako bat da biktimei erreparazioa emateko, bai indibidualki bai kolektiboki (sisteman arrakalak ireki eta egitura patriarkalak aldatzeko helburuz).

Horren harira, zenbait azterlanek diote beharrezkoa dela ahultasun, erresilientzia eta erresistentzia kontzeptuen esanahia berriro zehaztea, emakumea subjektu pasibo gisa erretratatzeko duen kontakizun hegemonikoari aurre egiteko:

Indarkeriazko kontakizunetan agertzen zaigun emakume ahul eta zaurituaren irudia, adostasun komunikatiboaren esparruan ainguratuta dagoen emakume bat da. Ulegarritasun hegemoniko moduko horrek eragotzi egiten du genero indarkeriaren beste kontakizun alternatibo batzuk eraikitzea eta deskodetzea, non biktima bere zaurgarritasunetik haratago irudikatzen den. (Núñez Puente, S. et al, 2018, p. 186).

Imajinario sozialean, gizona subjektu autonomo gisa identifikatzen da, eta emakumea subjektu kaltebera eta pasibo gisa. Kalteberatasunaren esanahia berritzea zera da: gorputz horien ahultasunetik eta elkarrekikotasunetik abiatuta hainbat subjektu identifikatzeak ekintza politiko ahaltzu bat sortzen duela ulertzea.

Hala ere, erresistentzia-politika horiek, komunitatean eta harremani eta interdependentziari lotutako ontologia sozial batean sortutako posizio politiko bat bultzatzea bideratuta daude, izaera neoliberaletako ontologia indibidual batean sortuak izan ordez (Núñez Puente, S. et al, 2018, 187 or.).

Beste era batean esanda, matxismo estrukturala eraldatzeko funtsezko alderdietako bat gizarte sare bat eratzea da, biktimek beren kalteberatasunean beren burua ikusi ahal

izan dezaten lotsatu gabe; izan ere, ez da berez sortu den zerbait, erabakitze gaitasuna ahultzen dieten zirkunstantzietatik sortutako zerbait baizik, aukera posibleak ixten zaizkiolako, hau da, desahaldundu egiten duelako. Horregatik, beharrezkoa da biktimak gizarte ekintzaren bidez esanahiz berritzea. Genero indarkeriaren egileek biktimaren isolamendu sozialaz baliatzen dira haren gaineko kontrola edukitzeko. Erakundeek, sare feministen laguntzarekin, genero indarkeriaren biktima diren emakumeekin elkarreragitea lortzeko neurriak hartu behar dituzte nahitaez, emakumeek indarkeriatik ateratzeak dakarren pisua bakardadean pairatu behar izan ez dezaten eta bizi bat ehuntzen hasteko aukera izan dezaten: emakumeak ezin dira erresilienteak eta erresistenteak izan nor bere aldetik; eta horretan saiatuz gero, prezio altuegia ordaintzen dute beren osotasun fisiko eta mentalean eta gaitasun erlazioaletan; horregatik, gizarte sare bat izan behar dute oinarri.

Lan honetan zehar ikusiko dugun bezala, biktimen erreparazio prozesuan beharrezkoa da erakundeek bizirik atera diren emakumeei beren istorioak (beraiei adierazgarria iruditzen zaiena) askatasunez kontatzeko aukera ematea, beren esperientziak hitzen bidez ulertu ahal izateko. Bigarrenik, erakundeek aktiboki entzun behar dituzte bizirik atera diren istorioak, eta biktimen balioa aitortu (Phelps, 2004, 45 or.).

Horretarako, erakundeek mugimendu, antolakunde eta sare feministen lankidetzarekin egindako lana funtsezkoa da, genero indarkeriari buruzko kontra-narrazioak eta kontra-irudikapenak egiteko (Barjola, 2018).

1.7. Emakumeen parte hartzea erreparazio prozesuetan

Erreparazio prozesu guztiek kontuan izan behar dute emakumeen ahotsa. Rubio-Marín hitzetan (2006), erreparazio prozesuei eman beharreko erantzuna kasu bakoitzera egokitu behar da; hala ere, nazioartean gaiari buruz egindako ikerketek hainbat puntu komun identifikatu dituzte emakume biktimen bizipenetan:

- Emakumeek justiziaren eta erreparazioaren aldeko mugimenduetan aktibo egoteko joera duten arren, emakumeek, oro har, konfiantza izaten dute pairatu dituzten indarkeria-mota ugariari buruz pentsatzera bultzatzen ez dituzten egituretan.

- o Emakumeek beste pertsona batzuen (gehienetan, gertuko senideak) biktimizazioari buruz hitz egiteko eta jarduteko joera dute, eurek bizi izan dutenari buruz hitz egin beharrean.
- o Emakumeek giza eskubideen aldeko erakundeen edo biktimen eta senideen elkarteen bitartez bideratzen dute beren parte hartzea, eta, soilik noizbehinka eta oraintsuago hasi dira mobilizatzen beren biktimizazioarekin lotuta dauden genero alderdi espezifikoengatik (Rubio-Marín R. 2006, 28 or.).

Ilido horretan, Gobernuaren Ordezkaritzaren azterlanak, lehen aipatu dugunak, bat egiten du Rubio-Marínek bere ikerketan identifikatu duenarekin: **emakumeek zailtasun gehiago dituzte beren burua biktimatzat identifikatzeko eta aitortzeko**. Eta hori egiten dutenean, seme-alabak babesteko egiten dute, edo ingurunean laguntza motaren bat aurkitzen dutenean.

Hala ere, genero indarkeriaren egoera batzuetan laguntza-sarea oso ahulduta dago eta zaila da biktima horiengana iristea. Prebentzio eta sentsibilizazio kanpainak antolatzeaz gain, premiazkoa da gune seguruak sortzea genero indarkeriaren biktimen kontakizuna jasotzeko eta sinesteko, kontakizun hori oso desegituratua edo nahasia izan arren; argi eduki behar da kalitatezko entzuketak egitea behar-beharrezkoak dela, kontakizuna egituratu ahal izateko. Horretarako, tokiko erakundeekin lan egin daiteke, zeharkakotasunetik lan eginez: landa-ingurune batean, adibidez, landa eremuko emakumeen elkarteekin harremanak sortu eta egituratu daitezke horrelako espazioak bultzatzeko; emakume migratuak antzeko jatorria duten beste batzuek entzun ditzakete, nahiz eta une desberdinak bizi; ikasketa- eta lan-maila altua duten emakumeek ere rol hori joka dezakete (bikotekidearen estatusarekiko eta beren buruarekiko babes zentzu handiagoa duten emakumeak adoretzeko).

Alde horretatik, erakundeek erreparazioari buruz bultzatzen dituzten ekimen guztiek emakumeen parte hartze aktiboa izan behar dute, zeharkako genero ikuspegia barruan sartzeko. Gainera, lurraldeko emakume guztiak batzea lortzen duten estrategiak sortu behar dira, horiek zeharkatzen dituzten interseksionalitate guztiak barne hartuta (migratzaileak, landa eremuko emakumeak, dibertsitate funtzionala duten emakumeak, droga-mendetasunak dituzten emakumeak, adineko emakumeak, lan edo ikasketa-maila altuko emakumeak, eta abar). Hau da, neurri guztiek kontuan hartu beharko dituzte herrian genero indarkeria jasaten duten emakumeen behar espezifikoak,

ingurunearekin dituzten esperientziak hala nola haien beharrak, genero indarkeriari erantzun integrala eman ahal izateko.

Adibidez, giza eskubideen aldeko erakundeetan edo talde feministetan edo indarkeriari buruz hausnartzen duten emakume taldeetan sartuta ez dauden emakumeek baliteke sare sozial eskasa izatea eta indarkeria hori identifikatzeko zailtasun gehiago izatea, pairatzen duten indarkeria hautematen lagunduko dien ingurune egokirik izango ez dutelako. Hau da, neurri guztiek kontuan hartu beharko dituzte lurraldean genero indarkeria jasaten duten emakumeen behar espezifikoak, indarkeriaren arazoari erantzun integral bat eman ahal izateko.

1.8. Biktimen erreparazioaren ardatzak

Biktimen erreparazioa eta sendabidea funtsezko ardatzak dira, ez bakarrik emakumeen prozesu pertsonaletarako, baina baita harreman sozialetan (hurbilekoetan zein komunitarioetan) sortzen diren botere-estereotipoak eta dinamikak aldatu ahal izateko ere, beste begirada batzuk eta beste kontakizun sozial batzuk eraikitzea ahalbidetzen dutelako.

NBEren oinarritzko printzipioekin eta jarraibideekin bat etorritik, eta 2021. urteko EUDEL Gida kontuan hartuta, biktimen erreparazio integralak barne hartzen ditu:

- **Lehengorapena:** giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko indarkeriaren edo nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriaren aurreko egoerara lehengoratu behar da biktima, ahal den guztietan. 2021. urteko EUDEL gidaren arabera, lehengorapen hori ez da aplikagarria genero indarkeriaren kasuan, biktimak berekin daramatzan sekuelak eta kalteak direla-eta ezinezkoa baita biktima indarkeriaren aurreko egoerara bueltatzea. Gainera, ikuspegi feministaren helburua indarkeriaren erro estrukturalak aldatzea da. Xede horrekin, **indarkeria matxistaren egiturak eta sinboloak aldatzeko** prebentzio neurriak hartu eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatu behar da.
- **Kalte ordaina:** Bortxaketaren larritasunarekiko eta kasu bakoitzaren zirkunstantzietatik modu egoki eta proportzionalan, kalte ordain bat eman behar

da, giza eskubideen nazioarteko arauak nabarmen urratzearen edo nazioarteko zuzenbide humanitarioa larriki urratzearen ondorioz ekonomikoki neur daitezkeen kalte guztiengatik. Adibidez:

- - o Kalte fisiko eta psikologikoa.
 - o Aukerak galtzea (enplegua, hezkuntza eta gizarte prestazioak).
 - o Kalte materialak eta diru sarreren galera.
 - o Kalte moralak.
 - o Gastuak: laguntza juridikoa, sendagaiak, zerbitzu medikoak, zerbitzu psikologikoak.

- **Errehabilitazioa:** biktimen errehabilitazioa lortzeko beharrezko neurriak hartu behar dira:
 - o Osasun arreta.
 - o Biktimaren ahalduntzea eta autonomia sustatzen dituzten baliabideak (arreta psikologikoa eta juridikoa).
 - o Behar diren gizarte, harrera eta ekonomia-baliabideak.
 - o Justizia.

- **Gogobetetasuna:** biktimen gogobetetasuna lortzeko, beharrezko neurriak hartu behar dira, hala nola:
 - o Pertsonen arteko indarkeria-egoerak geldiarazteko neurri eraginkorrak.
 - o Egitateak egiaztatzea eta jendaurrean osorik jakinaraztea.
 - o Bizirik atera diren biktimen duintasuna, izen ona eta eskubideak berrezarriko dituen adierazpen ofiziala edo erabaki judiziala.
 - o Biktimen, eraildako emakumeen, haien familien eta ingurunearen aldeko oroitzapen ekitaldiak, omenaldiak eta aitortpen publikoak.
 - o Material didaktikoetan indarkeriari aurre egin diotenen istorioak sartzea.
 - o Erantzuleei zehapen judizialak edo administratiboak aplikatzea.
 - o Barkamen publikoa (egitateak aitortzea eta erantzukizunak onartzea barne).

- **Ez errepikatzeko bermeak:** behar diren neurriak hartu behar dira, gertaera biktimizatzaileak berriro gertatuko ez direla bermatzeko; oinarri horien gainean pentsatu behar dira jarraitu beharreko neurriak eta jarduera-ildoak, hala nola:

- Prozedura guztiak berme prozesatara eta ekitatera egokitzea.
- Botere Judizialaren independentzia indartzea eta bermatzea.
- Prozesuan parte hartzen duten profesionalen artean arau etikoak eta jokabide arauak sustatzea.
- Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzko legeak berrikustea eta, hala badagokio, aldatzea.
- Emakumeen aurkako indarkeria-egoerak prebenitzeko, zaintzeko eta konpontzeko mekanismoak sustatzea.
- Gizarteko sektore guztietan balio onak sartzea hezkuntzaren bidez.
- Erreparazio prozesuan esku hartzen duten profesionalak babestea.

Gainera, erreparazioa eta suspertze eraginkorra lortu ahal izateko, jarduketek printzipio hauek izan behar dituzte oinarri: birbiktimizaziorik eza, erruduntasunik eza, zeharkakotasuna (prozedura osoa biltzen duen prozesuari erreparazioa esaten zaio) eta emakumeen zentraltasuna (emakumeak aldaketa-eragiletzat eta subjektutzat joz).



EUDEL, 2021, Indarkeria matxistaren biktimei erreparazioa emateko tokiko jarduerak, 15. or.

2. ANDOAINGO TESTUINGURUA

14 mila biztanlerekin baino gehiagorekin, eta Gipuzkoako lurraldean kokatuta, Andoaingo udalerriak tradizio handia du berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako politiketan. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako hirugarren plana (2020-2023) du indarrean; plan horretan, indarkeria matxistarik gabeko udalerri baten aldeko lan ardatza txertatuta dago, bi helburu nagusirekin: indarkeria matxistaren prebentzioa, sentsibilizazioa eta salaketa babestea eta indarkeria matxistaren biktimentzako arreta hobetzea; eta, biktimak ahalduntzeko prozesuetan laguntzea. Nabarmentzekoa da, ezen, 2020. urteko aurrekontutik % 40 bideratu zela indarkeria matxista prebenitzera eta biktimei arreta eta erreparazioa ematera, berdintasunerako planean ikus daitekeenez².

PROYECTOS	PRESUPUESTO
Mainstreaming	24.000€
Participación de las mujeres	11.000€
Escuela de empoderamiento para mujeres	36.000€
Prevención de la violencia machista	58.000€
Atención y reparación de la violencia machista	37.000€
Fechas significativas	27.000€
Plan de Igualdad	35.000€
Otros (señalización, materiales de cursos, espontáneos)	10.000€
GASTO GENERAL	238.000€
CVZLO CENEKVT	338'000€
Otros (señalización, materiales de cursos, espontáneos)	10'000€
Coste de impresión	20'000€

Gainera, 2019ko otsailean, Udalak udalerrian jarduten duten autonomia erkidegoko beste erakunde batzuekin batera, protokolo bat sinatu zuen indarkeria matxistaren biktimei eta bizirik atera direnei arreta emateko³, erakunde guztien jardunak eta koordinazioa erraztea helburuz, eta udal presentzia duten alderdi politiko guztiek akordio politiko bat sinatu zuten indarkeria matxistaren biktimei eta bizirik atera direnei arreta emateko eta dagokion erantzun publikoa emateko⁴.

² <https://www.andoain.eus/documents/131314/0/berdintasun+plana+gazt.pdf/42f0311d-46ef-c91d-48c3-d6cfa65a0e52>

³ <https://www.andoain.eus/documents/131314/8129884/Protocolo+de+Andoain+CAST+Feb+2019.pdf/cff73dbc-f1ee-c810-bd1f-150362e64b92>

⁴ <https://www.andoain.eus/documents/131314/8129884/Acuerdo+pol%C3%ADtico+Andoain+febrero+2019.pdf/dc973bbe-5873-364e-3cf5-4d5900eebcae>

Bi dokumentuetan arreta berezia ematen zizaion erreparazioaren ikuspegia garatzeari, eta hortik abiatuta, berdintasun arloak lan ildo bat bultzatu du; ildo horren barruan sartu da teknikarien prestakuntza, bai eta koordinaziorako eta urteko datuak zenbatzeko etengabeko lana ere (2021ean, esaterako, 35 laguntza-eskaera berri jaso ziren, eta horietako 25 udal baliabideetara bideratu ziren, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren tratu txarren biktimak izan zirelako).

Koordinazio teknikoko lan horretaz gain, erreparazioaren ildotik jarraituz, herritarrak sensibilizatzeko beste lan bat egin da, biktimen memoria berreskuratuko duten argazkien bidez; bestalde, erreparazioaren ikuspegi hori jasoko duen baliabide espezifiko bat abian jartzearen aldeko hautua egin du udalak. Erreparazioaren alde lan egiteak esan nahi du udalerraren erantzukizuna dela zerbitzu publikoetan sartu nahi dutenentzako ate asko irekitzea, udalerriko ahalik eta emakume gehienengana iristearren.

Gauzak horrela, *Taupada* sortu zen, ezkutuko hainbat indarkeria-mota agerian jartzeko beharrari buruz hausnartzeko; bertan, bizi dituzten esperientziak indarkeriatzat hartzen ez dituzten emakumeei ematen zaie arreta, emakume horiek ez baitira identifikatzen "biktima" hitzarekin eta irudiarekin, ezta hitz horren definizioarekin ere; beraz, indarkeriaren biktimei zuzendutako zerbitzu publiko batera ez dute laguntza eske joko. Ildo horretan, *Taupadak* bere eginkizuna bete du: gizarte zerbitzuetara jotzen duten emakumeen adin tartetik gora dauden emakumeei arreta ematea; eta, nahiz eta indarkeriaren inguruan egiten dituzten eskaerak askoz lausoagoak izan, argi eta garbi islatzen dute genero rolen eta harremanen ondorioz jasaten duten ezinegona.

Bestalde, *Taupadak* familia- eta lagun inguruneekin lan egiten duen zerbitzu gisa ere definitzen du bere burua, bi ingurune horiek oinarritzotzat jotzen baititu emakumeen erreparazio prozesuan. Elkarrizketatutako profesionalek aitortzen dutenez, gizartean indarkeriarekiko Zero tolerantzia diskurtsoa dago, baina irmotasun hori nahiko apaltzen da erasotzailea ezagun bat denean; kasu horietan, zalantzan jartzen baitira emakumeen esperientzia eta testigantza.

Andoainen, emakume mugimendu nahiko aurrerakoi bat dago; hala ere, horrek ez dakar beti emakumeentzako segurtasun giro bat sortzea, eta hori da hain zuzen udalaren konpromisoarekin aldatu nahi dena. Jarraitu nahi den lan ildoaren adibide gisa, auzokide baten jazarpen kasua aipa dezakegu. Jazarpen kasu horretan, udalak aurrea hartu zuen eta jazarlearen aurkako salaketa bat aurkeztu zuen; emakumeari dirulaguntza bat eman zion prozesu judiziala ordaintzeko; eta auzokoen arteko babesa sustatu zuen, emakumea izan ez zedin bizilekuz aldatu behar zuena.

Udalak bultzatu nahi duen erreparazio ikuspegia, egoera kritikoan dauden emakumeei ematen zaizkien laguntza puntualetatik haratago doa; emakumeen beharretatik abiatutako arreta integral bat eskaini nahi da: haien testuingurua ezagutzea, laguntzak zabaltzea haien lagunengana edota senideengana hurbilduz...; izan ere, erreparazioa ulertzen dute ekimen kolektibo multzo baten gisa, zeinak gizartea behartu behar duen konpromisoa hartzera eta biktimen eta emakume guztien eskubideak bermatzera.

Taupadako arduradunak dioenez, emakumeengana iristeko zailtasunetako bat isiltasuna da. Emakume askok indarkeriatik bizirik irauteko modua aurkitu dute bide horretan, eta zaintza-estrategia gisa isildu egin dira, inongo baliabiderik eskatu gabe; horrelako kasuetan, biktimaren ingurunea da isiltasunaren esanahia ondoez gisa (edo bizipena hitzetan jartzeko zailtasun gisa) hauteman dezakeen bakarra, eta horregatik bihurtzen da funtsezko detekzio iturri. Hemen, ordea, paradoxa bat sortzen da; izan ere, gertatzen zaiona azkenean kontatzen duenean, inguruneak presioa egiten dio, egoeratik lehenbailehen atera dadin, baina ez dakite nola lagundu hori lor dezan, eta, beraz, erabakiak hartzerakoan bakarrik geratzen da berriro; eta inoiz ez denez prozesu erraza, biktimaren ingurunea zapuztu egiten da eta batzuetan hari laguntzeari uzten dio.

Beraz, inguruneak ere laguntza behar du, emakumeak eta emakumeen dinamika erlazionalak ulertzeko gai izan behar du, bai eta indarkeria horren aurrean nolako erantzunak garatu dituen ulertu ere.

Udalerriko emakume elkarteek arazo honi buruz egiten dituzten ekarpenek iritzi hori bera azpimarratzen dute: pertsona batzuek, batez ere senideek, lagundu nahi lukete, baina ez dakite zer egin, ez noiz ez nola. Erasotzaileak ere bere ingurunea aktibatzen du, eta, orduan, ia beti, biktimaren segurtasunaren kaltetan izaten da; ondorioz, bere erruduntasun sentimendua eta bere bizipenen errealitateari eta tamainari buruzko zalantzak areagotu egiten dira.

Elkarteren batean parte hartzen duten udalerriko emakumeek adierazten duten bezala, ingurunea zalantzan jartzen duen erantzuna beste indarkeria mota bat da biktimarentzat. Erotzat hartzen badute indarkeriak jota dagoenean, tratatzeko zailak diren jokabide nahasiak agertzen dituenen, oso kaltebera denean... horrek guztiak oso eragin negatiboa izan dezake berarengan; eta horrek, batzuetan, indar handiagoa ematen dio erasotzaileari, zeren, familiak berak indartuta, pertsona fidagarri bihurtzen baita (eta familiak emakumeak presionatzen ditu, alde egin ez dezaten).

Horren ondorioz, familia- eta ingurune soziala leku itogarri bilaka daiteke emakumeentzat. Eta ez bakarrik bikotekide bat, elkarbizitza-esperientzia bat eta bere diskurtsoan sinesten ez duen ingurune bat dituztenen kasuan; izan ere, gauza bera gerta dakieke harreman hasi berri bat edo noizbehinkako harreman bat dutenei, edota indarkeriatik atera diren baina bikotekide ohia zelatan duten emakumeei, batez ere tartean seme-alabak daudenean eta haien zaintza koordinatzen jarraitu behar dutenean.

Elkarrizketatutako emakume gazteen iritziz, lagun taldeek, indarkeria-egoeraren baten berri dutenean, gertaerak minimizatzeko joera izaten dute. Haietako batek dioenez, horrelako esperientzia bat izan zuen, gazteagoa zenean; garai hartan lagun batek esan zion bere mutil lagunak tratu txarrak ematen zizkiola, eta kontaketa dudak jarri zuen. Aurrerago, laguna harreman hura utzi zuenean eta drogekin arazoak zituen mutil batekin ateratzen hasi zenean, lagun talde osoak babestu egin zuela kontatzen du, eta orduan zera aurpegiratu ziela: "Drogekin, bai, intoleranteak zarete; baina indarkeriarekin ez". Esaldi horrek markatu egin zuen, konturatu baitzen indarkeriari bestelako garrantzia ematen zaiola, biktimaren inguruan zalantza asko pizten direla, eta azkenean, biktima bakarrik geratzen dela.

Oro har, udalerrian jarduten duten eta elkarrizketatuak izan ziren zerbitzu eta elkarreentako kide guztiak bat datoz ingurunearen garrantzia azpimarratzean, eta garbi dute ingurunearen laguntza funtsezkoa dela indarkeriatik ateratzeko. "Bakarrik geratzen direnean, inork sinesten ez dienean edo seme-alabak aitaren alde jartzen direnean, izugarria da, ezin dira beste kolpe latz horretatik suspertu", dio emakume asko tratatzen dituen profesional batek. Eta ondorio gisa, honela dio: "Bai biktimei bai emakume guztioi ardurua handia ematen digu gizonen izen ona gordetzeak; asko kezkatzen gara gizonen bizitzak hondatu ez daitezen haiei buruzko gezurrak zabaldua"; eta horregatik izaten

gara hain zorrotzak batzuekin eta hain laxoak emakumeengandik jasotako informazioekin.

Bera lekuz kanpo utzi zuen esperientzia bat kontatu digute elkarte bateko kideak: "Kartel bat atera zuten gizonaren argazkiarekin, eta hartaz esaten ziren gauza asko egiazkoak ziren; ez dakit denak egiazkoak ziren, baina azkenean gizonak herritik alde egin zuen. Ez dakit dena egia ote zen, eta ez nekien ba ote zegoen ondo gauza horiek zabaltzea, gizon hark aurrerantzean ezin izango baitzuen burua altxatu; dena den, egin ziren salaketak larriak ziren eta frogatu egin ziren.

Profesional guztiek azpimarratzen dituzte ingurunearen garrantzia eta elkarteetatik eta erakundeetatik lan egiteko beharra; hala ere, deigarria da gizon erasotzaileen irudia zaintzeko zer-nolako kezka dauden oraindik pertsona batzuen artean, baita gazteen artean ere. Emakumeak kaltetuta eta isilik ikusi arren (edo, beharbada, horretxegatik, hain zuzen), salatzailea gehiegikeriaz jokatzeko ari ote den edo sentikorregia ote den kezkatzen dira, eta, ondorioz, zalantzan jartzen dute ea ondo egiten ari ote diren hura babestean; sentsazio horrekin, herrian egin diren salaketak behehitzea lortzen da.

Nahiz eta instituzionalki Andoaingo testuingurua askoz ere mesedegarriagoa izan biktimei laguntzeko orduan, erasotzailearekiko eta haren izen onarekiko kezka landu beharreko elementu bat da, biktimek beren istorioak kontatuko dituzten espazio seguruak eraiki ahal izan ditzagun.

Eta, nola adierazi isilarazitako esperientzia horiek, hainbat eta hainbat ihesbideren bidez ezkutatuak, hain nahasiak, non, batzuetan ezagutezinak eta ulertezinak izan daitezkeen? Violiren hitzetan (1991), emakumeek harreman paradoxikoa dute hizkuntzarekin; objektu gisa eraiki dituen hizkuntza batean subjektu hitzun gisa kokatuta daude emakumeak; hau da, gizonei entzuten eta sinesten zaien erraztasun berberarekin entzunak eta sinetsiak izan daitezten, beren burua adierazteko modua ukatu eta gizonena bereganatu behar dute, eta horrek askotan berekin ekartzen du erasotzailearen hizkuntza bera eta errealitatea ulertzeko modu bera erabiltzea; beraz, desabantailaz abiatzen dira.

Indarkeriazko istorioetatik abiatuta, familia-ingurunean, lagunartean eta auzokideen artean errotuko den hizkuntza bat sortzeko, lehenik eta behin ulertu behar da "Nik sinesten zaitut" kontsignak biktimen sinesgarritasun presuntzioa onartzea dakarrela; eta

kultura patriarkalaren iritziak eta pisua gorabehera, kontraesana, sinesgabetasuna, beldurra eta egia eraikitzeko zailtasuna integratuko dituzten narratibak eraikitzeko baliabideak jartzen ari direla. Eta beren istorioaren narratibak horrela direlako, hain zuzen, biktime diren emakumeek sinetsiak izan behar dute eta seguru sentitu behar dira euren berreraikuntzari ekiteko, bizi izan duten indarkeriak eragin dien kaltea gorabehera.

3. LAN METODOLOGIA

Indarkeria matxistaren biktimei erreparazioa emateko estrategietan sakontzen jarraitu nahian, Andoaingo Udaleko Berdintasun Arloak ingurunearen erantzunari buruzko azterketa kualitatibo bat egitea proposatu zuen, ingurunearen erantzunari buruz biktimek eta inguruneak berak duten pertzepzioa ahal den neurrian ezagutzeko eta aztertzeko. Erasotzailearen ingurunera ere iritsi nahi genuen, bide hori egitea oso zaila izango zela aurreikusi arren.

Zergatik azterketa kualitatibo bat? Erantzuna guztiz justifikatuta topatu dugu Nafarroan egin berri den azterlan batean, bertan dibortzio prozesuak azpimarratzen badira ere. "Azterlan kualitatibo batek lekukotasunen eta beraien zentzuen garrantzia azpimarratzen du, estatistikek eskaintzen dituzten datuetatik haratago dagoen zerbait (estatistikak ordezkatzan ez baditu ere) eta bizi izandako benetako istorioekin bat egiten duena".

Azterlan hau gertuko erreferentziatzat hartuta, baina sakondu nahi zen errealitatera hura egokituta, honako lan eskema hau planteatu zen: elkarrizketak egitea emakume biktimei, teknikariei, genero indarkeriaren biktimeen senideei eta erasotzaileen senideei (udalerriko indarkeria matxistaren kasuen aurrean erantzun sozialen bat izan ohi duten elkarteei ere elkarrizketak egiteaz gain).

Biktimekiko esku hartze zuzenean eta Udalak ematen duen erantzun publikoan inplikaturik dauden teknikariei eta arloetako arduradunei erdi egituraturiko hiru elkarrizketa egitea planteatu zen, eta horien artean oinarriko gizarte zerbitzuak, *Taupada* zerbitzua eta Berdintasunerako udal zerbitzua zeuden. Talde horretan 4 elkarrizketa egin ziren. Gainera, lau elkarrizketa egin ziren gizarte entitateekin; haietako hiru udalerrian finkatuta zeuden, eta bestea indarkeriaren biktime diren emakumeekin

lan egina zen 2020-2021 urteetan, gizarte zerbitzuek bultzatutako talde esperientzia batean.

Beraz, herriko profesionalek eta emakume aktiboek osatutako taldea izan zen zabalena, eta Andoaingo testuinguruari buruzko atala haiei egindako elkarrizketetatik atera zen.

Xedetzat hartu zen genero indarkeriaren edo sexu erasoen biktima diren emakumeen bizitzako lau istorio lortzea; erantzun guztiak ingurunearen erantzunean jarri behar zuten arreta, haien egoera plazaratuz geroztik, berdin ziolarik biktimek eurek edo beste pertsona batzuek plazaratua zuten, dela salaketa bidez dela zerbitzu publikoren bati egindako laguntza-eskaera bidez. Lau istorioak lortu ziren, baina, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala, biktima bakoitza bere prozesuaz bestelako une batean zegoen, eta, hortik aurrera, bakoitzak bere istorioa ekarri zuen ikerlan honetara.

Lau kasuetan, bikotekideen indarkeria pairatutako biktimak ziren. Elkarrizketa egiteko orduan, bikotekide ohiak ziren, guztiak haiek salatu zituztelako; beraz, haien egoera haien ingurune hurbilean ezagutzera emateko baldintza betetzen zen, eta, gainera, kasu batzuetan, haien istorioa bizilagunen ingurunean eta herrian bertan ere ezaguna zen.

Era berean, bi orduko talde fokal bat egin zen zortzi astez; bertan, parte hartzaileen istorioetan sakontzeaz gain, suspertzeko elementuak ere eskaini zitzaizkien. Elkarrizketatutako emakumeetako bik talde horretan hartu zuten parte, eta beste batek taldean parte hartu nahi izan zuen, baina ez azterlanean bakarka. Beraz, azterlan honetan emaitzak aberasteko talde lanaren intsumoa ere jasota badago.

Halaber, genero indarkeriaren biktimen eta erasotzaileen zuzeneko senideei edo lagunei lau eta sei elkarrizketa artean egitea planteatu zen, kasuak elkarrekin konektatuta ez egoten saiatuz. Hori izan zen ikerketaren parterik zailena, eta hiru laguni eta bi laguni lau elkarrizketa egitea lortu zen, baina guztiak emakume parte hartzaile bakar baten inguruneak.

Eremu-ikerketaren planteamenduaren zatirik handienean ezarritako helburuak lortu ziren arren, mota horretako ikerketetan parte hartu nahi duten pertsonak bilatzea nahiko korapilatsua izaten da, batez ere istorioei inguratzen zaien isiltasunagatik. Argi utzi behar da, ezen, gizarte zerbitzuen eta berdintasun arloaren inplikaziorik gabe, lan hau egitea

ezinezkoa izango litzatekeela. Haien bitartez lortu zen emakumeek parte hartzea, beren istorioak kontatzeko behar zuten konfiantza ikerketa-taldeari helarazi baitzioten.

Arlo honetan asko dago egiteko, ezin izan baitzen erasotzailearen ingurunera iritsi, eta, beraz, beste alderdiaren informaziorik ez dago; dena den, azterlan honekin irekitako bideak aukera ematen du erasotzailearen ingurunearen informazio hori bilatzen jarraitzeko.

4. EMAITZAK

4.1. Emakumeen eta euren ingurunearen narratiba desberdina

Beren indarkeria-istorioa (indarkeria horretatik ateratzearena barne) kontatzeko prest zeuden emakumeak aurkitzea zaila izan da; eta hori jada lehen aztertutakoaren adierazgarria da. Gaur-gaurkoz, biktimen narratiba oraindik ere lotsagarria eta samina gertatzen zaie, eta nahiago dute ez hastea beren istorioa berrikusten eta berreraikitzen, guztiz beharrezkoa ez bada, hau da, onura judizialik ez badu, adibidez.

Hala eta guztiz ere, udal langileen laguntzarekin, eta batez ere gizarte zerbitzuei esker, lau emakumeren testigantza lortu zen. Indarkeria matxistaren biktima gisa bizitzeko eta euren burua bizitzeko modu desberdinak daudela erakusten du horietako bakoitzak, dagozkion forma guztietan; eta prozesuari jarraituz, narratiba horiek hiru ataletan banatuko ditugu.

Lehenengoan, euren burua identifikatu nahi ez zuten eta indarkeria-prozesuetan eta indarkeriarekin apurtzeko prozesuetan gehiegi ez sakontzeko baldintzarekin elkarrizketan parte hartu zuten bi emakumeren istorioen zatirik nabarmenenak laburbildu ditugu. Haiekin zortzi lan saio egin ziren, haien bizipenaren min sakonak mututasunean murgildu baitzituen, eta, horregatik, konpromiso etikotzat jo genuen haien esperientzia mingarria arintzen eta lantzen laguntzea.

Bi emakume hauen egoera eta haien istorioak argi eta garbi ez identifikatzeko adierazitako nahia errespetatuz, E eta B deituko diegu.

Bere burua eta beste emakume batzuk ulertzeko prozesuan dagoen emakume batek egiten du **bigarren narratiba**. Bera babestuta sentitu da, eta beste emakume batzuk babesteko beharra sentitu du; hala ere, berak ere bere indarkeriazko istorioa kontatu du oinaze zaharren esparrutik, zorte txarrez eta erabaki okerrez betetako bizitza baten istorioaren harira. Bere istorioa kontatzeko indar faltarik ez badu ere, oraindik ez du bere burua protagonistatzat ikusten, eta horregatik deituko diogu lanire; ez da bere benetako izena, baina badu antzik.

Azkenik, **hirugarren** narratiba arazo honen konponbidearen ageriko parte izan nahi duen emakume batena da; horretarako, bere esperientzia propioa eman du. Ainara deituko diogu, bere burua identifikatu nahi duelako eta biktimen erreparazio prozesuan eragile izan nahi duelako. Beraz, lagun taldeko hiru neska eta bi mutil batu zituen lan honetan, beren testigantza eman zezaten; elkarriketek baldintzarik gabeko babes istorio bat ehuntzeko aukera eman zuten, eta horri esker, indarkeria aitortzeko eta atzean uzteko prozesutik indartuta atera da.

4.1.2. Narratiba mina eta amorrua denean

a) B-ren istorioa.

Bere narratiban zehar B-ri ez zaizkio hitzak ateratzen; ezin du ondo hitz egin. Blokeatuta sentitzen da, eta behin eta berriz errepikatzen du ezin duela gehiago, ez duela gogorik ez indarririk aurrera egiteko. Bizirik jarraitzeko duen motibazio bakarra, dio, bere semea da; eta semea ere aitaren indarkeriaren biktima da, bera bezala. Aitak jostailu garestiak erosten dizkio estrategia gisa, baina ez da haren hezkuntzan inplikatzeko, ezta mugak jartzeko zereginean ere, eta horrek haurraren jokabidean badu eragina. Aitaren bisita tokatzen denean, aitak ez ditu ordutegiak betetzen, ez dio etxeko lanak egiten laguntzen, haurra ez du dutxatzen eta asaldatuta ekartzen dio. "Txantxetan" ibili ohi da, esanez haurra berekin eramango duela eta ez duela berriro ikusiko.

Aurrera egiten ahalegindu arren, amorrua pilatu zaiola aitortzen du, ez duela jendeak bera ikustea nahi; "oso gaizki nago", dio. Amorru hori haurtzarotik datorkiola dio, oso garai gogorra izan zela gogoratzen du, amak ez zion kasurik egiten eta tratu txar psikologikoak ematen zizkion. Amaren hainbat esaldi ditu gogoan, hala nola: "*Hi hago isilik, etxe honetako ume purzil bat baino ez haiz; ez dun pitorik balio*", eta gaur egun B-k haurra zeneko min berbera sentitzen du oraindik, eta ezin du bere iragana atzean uzi, ez baitu

inolako erreparaziorik aurkitzen amarekin gaur egun duen tratuan (amak dio ez duela kontakizuna gogoratzen berak kontatzen duen moduan, eta ukatu egiten dio aitorten hori ere).

Onartzen du, ze, bizirik irauteko bere estrategiaren parte bat isilik egotea izan dela. Kaleko pertsoneri begira irudi faltsu bat sortu du beraz, eta, ondorioz, jendeak ez du bera ondo ezagutzen; horrek gertutasun emozionala zailtzen dio, oso bakarrik sentiarazten du, norekin irten ez duela, norekin hitz egin ez duela; izan ere, ez du lagunik, eta jendeak bera epaitzen duela iruditzen zaio, pairatu zuen indarkeria-egoerarik larriena oso ezaguna izan baitzen bere herrian, eta, haren izenik inoiz aipatu ez bazen ere, gertatu zitzaiona komunikabideetan publikoki ezagutarazi izanak ez zion erreparazio gisa balio izan.

Nik ez nuen ezer kontatu, eta uste dut biktima askok ere ez dutela ezer kontatzen, baina norbaiti kontatzea, laguntza-sare bat izatea eta jendeari horren berri ematea garrantzitsua dela uste dut. Nik ez nion inori kontatu, ez familiari ez beste inori; eta larriena gertatu zenean, jipoia alegia, orduantxe jakin zuten.

Gauetz izan zen (jipoia), kalean jendeak ikusi gintuen baina inor ez zen etorri laguntzera, gorputz osoa odolez beteta neukan, hark heltzen zidan eta esaten zidan ez begiratzeko autoari, ez begiratzeko inori ala hil egingo zaitut, gizon bat igaro zen ondotik txakurrak paseatzen eta ez zuen ezer egin, une horretan geratu nintzen uuuffff!... zure aurrean hilko naute eta ez duzu ezer egin behar?

Bere etxera eraman ninduen ni hiltzeko. Beste bi lagunekin bizi zen, alokairuko etxe batean; egun hartan, pisukideetako bat etxean zegoen eta ez zen logelatik atera. Pisukideek ez zuten inoiz ezer egin, inork ez zuen ezer egin; eta salbatu banintzen, bizilagun bati esker izan zen, entzun baitzigun, eta poliziarik deitu zion. Bere etxean bizirik larrutu ninduen; handik pixka batera, polizia iritsi zenean, ni ohean nengoan, ia konorterik gabe. Ospitalean bukatu nuen, eta orduan jakin zuen jendeak zer pasatzen ari zen, eta prozesu osoa hasi zen.

Egunkarian atera zen, enteratu ere ez nintzen egin, familia baino ez neukan, ospitalean bost egun eman nituen, garai bateko lagunak bisitan etorri zitzaizkidan, egun bakoitzeko bat, baina hortik aurrera ez nuen deusik jakin haiei buruz, ez zidaten deitu, ezta etxera etorri ere, ezer ez. Amak konortea galdu zuen ikusi ninduenean, aurpegia desitxuratuta neukan, munstro bat nintzen; aitak ez ditu bere sentimenduak adierazten, baina hortxe egon ziren nirekin. Gurasoen eta anaiaren babesa sentitu nuen.

Ospitalean oso ondo tratatu ninduten, ezpainak eta hortza berrosatu zizkidaten; abokatuari dagokionez, deitu egiten nion, zeren, etxera iristen nintzenean, zalantzak sortzen baitzitzaizkidan prozedurari buruz; baina hirugarren aldiz deitu nionean, hantxe hasi zitzaidan esaten ezin niola deitu nahi nuen bakoitzean. Gizarte zerbitzuetara laguntza eske jo nuenean, esan zidaten ez nituela betetzen laguntza jakin batzuk jasotzeko baldintzak. Hilda egon behar al dut baldintzak betetzeko? Hilda egon behar al duzu jendeak eskuak burura eraman ditzan? Psikologo bat jarri zidaten eta hobera egiten ari nintzen, baina saioak amaitu ziren, eta orain ezer ez.

Dena pasatu zenean, dena okerrera joan zen, bera deabru bat zen eta barruan zeraman deabru hura, bere jipoiaren bidez adierazi zuen gorroto eta amorru guzti hura, barruan sartu zidan, urteak behar izan nituen amorru hura kanporatzeko.

Pertsona bat hurbildu zitzaidan eta istorioa kontatu nion, baina ez da beste inor hurbildu nigana, inori ez zaio axola, egunkarian atera zen eta batzuek bazekiten nor nintzen eta beste batzuek ez, baina inor ez zen nigana hurbildu eta inor ez zen nirekin harremanetan jarri. Ondo legoke norbaitek besotik zuri heltzea eta prozesu osoan laguntzea.

B-k erreparazio bat nahi zuen, inguruko pertsonen laguntza behar zuen, hark esplizituki eska zezakeenaz harago, baina ez zuen laguntzarik izan. Inguruneak hari ez laguntzeaz gain, bakarrik ere utzi du, eta orduan, bere mina amorru bihurtu da ingurune horren aurka. Haren bizia arriskuan jarri zuen erasoaren lekuko izan ziren eta deusik egin ez zuten pertsonen axolagabetasunak kalte handia egin dio; jaso zuen mezua izan zen inori ez

zaiola haren bizitza axola, gizon hark bera hil dezakeela edo saia daitekeela bera hiltzen axolagabekeria orokorraren aurrean. Gutxieneko babesak jaso dituela iruditzen zaio, nahiz eta literalki indarkeriatik bizirik atera den norbait izan eta Andoainen egindako salaketa baten erdigune izan. Hala ere, salaketa horrek ez zuen berekin ekarri berak behar zuen jarraipena, eta, horregatik, orain ezin da ingurune horretara hurbildu, eta isiltasun depresibo batean hondoratu da.

Talde fokalean parte hartzeak indarberitu zuen neurri jakin batean, baina laguntza hori berarentzat beranduegi iritsi dela sumatzen du.

b) E-ren istorioa.

E-ri ere asko kostatu zaio bere istorioa kontatzea, baina familiaren laguntzari esker hobeto dagoela aitortzen du. Babes hori isila baina etengabea da. Kasu honetan ere badago muturreko indarkeriazko une bat, haren orduko bikotekideak lekukoen aurrean burutu zuena, baina lekuko horiek ez zuten beste albo batera begiratu, B-ren kasuan bezala; aitzitik, bera babestu eta salaketa jartzera animatu zuten. Euskarri horrek inflexio puntu bat markatuko du E-ren susperraldian.

Gertatu zenean (orduko bikotekideak fisikoki eraso zionean), alabarekin eta bere mutil lagunarekin eta nebarekin nengoen, eta salaketa jarri behar nuela esan zidaten. Gutako inork ez zekien salaketa bat jartzeko prozesuaren berri, baina haiek garbi zeukaten salaketa jarri behar nuela; nik zalantzak nituen, baina haiek ez zuten zalantzarik izan. Azkenean, pixka batean hausnartu eta salaketa jartzea erabaki nuen... Baina bakarrik egon izan banintz, ez nukeen salaketarik jarriko; komisaldegian egon nintzenean ere... niretzat oso gogorra zen han egotea. Alaba ondoan nuen, eta bere aita salatzen ikusi behar ninduen... Baina berak aienatu zizkidan zalantzak, esan baitzidan: "Bai, gogorra da aita salatzea, baina are gogorragoa izan da zu lurrean ikustea aitak lepotik heltzen zizula". Hitz horiek aurrera egitera adoretu ninduen.

Nire familiaz harago, beste inork ez daki horren berri; orain pixka bat hasi naiz gertatutakoa lagun batekin partekatzen... Baina kontua nirekin bizi izan zutenekin daramat dena; ez didate inoiz ezer

aurpegiratu, ahalik eta gehien babestu naute, une batez ere ez naute bakarrik uzten. Gauza txar guztietatik zerbait ona atera behar dela esaten dute; bada, kasu honetan, nik banekien maite nindutela, baina orain badakit benetan maite nautela.

Hurbilekoekin kontuaz hitz egin dudanean, haien lehenengo erantzuna harridura izan da beti: "Bera? Posible ote? Ezin dut sinetsi, oso jatorra dirudi eta". Ez dut kontakturik ez herriko jendearekin ez auzokoekin, ezta inorekin ere; harremanak saihestu egiten ditut; oraindik guztiz ondo ez nagoenez, badakit gauza negatiboren bat esaten didatenean behea joko dudala, eta hori ezin dut egin. Badakit parte hori negatiboa izan daitekeela niretzat eta akaso oker nabilela, baina nahiago dut harremanak saihestu, ez nago prestatuta.

Zerbait hartzen zuen lekutik pasatzen banaiz, ezagutzen genuen jendearen aurretik pasatzen banaiz, goitik behera begiratzen didatela ohartzen naiz, ez dute ezer esaten, baina haien aurpegiek dena esaten dute... Pena da, badakit jende horrek haren bertsioa dakiela, baina nirea ez dakite. Hasieran gogaitu egiten ninduen horrek, eta zenbait momentutan garrasika hasteko gogoa izan dut, mundu guztiak jakin dezan hain-hain ona ez dela; baina, jarraian, ez duela merezi pentsatzen du, nahiz eta zenbait egunetan bidegabea dela uste izan.

Uste dut estigma handia dagoela; iruditzen zait jendeak uste duela nik orain ohean egon beharko nukeela, antidepressiboak hartzen, kalera atera gabe eta ezer egin gabe; hori bizi izan dut; jakina, hori bizi izan dut; eta kontuak horretan dirau; baina, inguruan dudan jendeari esker, aurrera egitea lortzen ari naiz; nire motorrak alabak eta neba dira, baita nire egungo bikotekidea ere; aurrera egin behar dut; oso lagunduta sentitzen naiz.

Hori guztia (erasoa) gertatu zitzaidanean, denak batera etorri zitzaizkidan: Ertzaintza, gizarte zerbitzuak, abokatu... Gero, kontua geldituz joan da pixkanaka, eta une honetan badirudi denak nitaz ahaztu direla.

E-k kontatu digun istorioan suspertze prozesua pixkanaka aurrera doa, batez ere familiaren babesagatik. Ingurune soziala hor dago, baina berak urrun mantentzen du; orekari eusten saiatzen da, oreka hori oraindik prekarioa dela onartzen duen arren.

B-ri bezala, berari ere iruditzen zaio erakundeen babes eskasa dela, krisiaren garaian kontzentratu zen gehienbat, baina orain bakarrik utzi dute, eta bakarrik utzi dute ez berak uste duenean jada ez duela babes hori behar, ezezagunak zaizkion irizpide batzuei jarraituz baizik.

4.1.3. Narratiba zaurgarritasunetik abiatzen denean

lanirek bere burua definitzen du betiko emakume andoaindar baten gisa. 8 urterekin umezurtz geratu zenetik aitona-amonekin bizi izan zen, 14 urterekin bikotekide ohia ezagutu eta 15 urterekin herritik ihes egin zuen arte, berarekin bizitzera joateko. Tratu txarrekin lotutako bere istorioa hor hasi zen; eta istorio hura amaitu zenean, herrira itzuli zen. Beti sentitu du jendearen babes, eta ez du inoiz arbuiorik pairatu edo inori aurre egin beharrik izan gertatutakoagatik. Uste du hori hala dela txikitatik ezagutzen dutelako, eta badakite zenbat sufritu duen eta zeinen gogorra izan den; beraz, ezer aurpegiratu orde z edo errua berari bota beharrean, babestu egiten dute.

17 urte nituenetik 26 urte bete arte egon nintzen berarekin, eta bi seme alaba izan genituen. Lehenengoa jaio zenean 18 urte nituen, eta txikienak orain 14 urte ditu eta % 95eko desgaitasuna du. Berarekin irteten hasi nintzenetik nahiko kontzientea nintzen bizitzen ari nintzenaz, baina ezin nintzen hortik atera. Bigarren umea izan nuenean hondoa jo nuen. Orduan, erreakzionatu egin nuen.

Jotzen ninduenean, hark edo haren aitak laguntzen ninduten beti osasun zentrorra, eta ez ninduten bakarrik uzten; beraz, gezurra esaten nuen eta kontatzeko esaten zidatena kontatzen nuen: erori nintzela, nahi gabe kolpe bat hartu nuela, etab. Larrialdietan ere gezurretan aritzen nintzen. Inork ez ninduen inoiz aparte eraman galdetzeko ea bera ote zen gauza horiek egiten zizkidana.

Hondoa jo eta harreman horretatik irtetea erabaki nuenean, gizarte zerbitzuetara joan nintzen eta gizarte langilea epaitegira joan zen.

Urrats hori emateko, itxaron egin behar izan nuen umeak utzi zion arte ospitalean hainbeste denbora pasatzeari; baina erabakia hartu nuenetik, dena oso azkar joan zen. Ertzaintzara joan nintzen deklaratzera, eta berehala eraman ninduten pisu batera seme-alabekin; han, bi aste eman nituen. Une horretan bertan eskolta jarri zidaten eta telefono bat eman zidaten. Oso zainduta eta babestuta sentitu nintzen.

Harremanean zehar, ni jotzeaz gain, ni hiltzearekin ere mehatxatzen ninduen, eta esan zidan hil egingo ninduela uzten banuen. Egokitu zitzaidan ofiziozko abokatuari hori guztia kontatu nion, eta bikain portatu zen: haurren zaintza lortu zidan, baita urruntze agindurako ahalik eta distantziarik handiena eta gehieneko urte kopurua ere. Bera zazpi urtez egon zen kartzelan, eta gaur egun libre badago ere, urruntze aginduak indarrean jarraitzen du.

Duela pare bat urte espetxetik atera zen, eta nigana hurbildu ezin bada ere, min handia egiten dit nire seme zaharraren bitartez. Mutikoak iraindu egiten ninduen, gaizki tratatzen ninduen, aitari entzundako gauza berberak esaten zizkidan. Semearekiko harremana okertuz zihoala ikusi nuenean, laguntza eskatu nuen. Gizarte langileek asko lagundu zidaten. Umearentzat gizarte hezitzaileak jarri zizkidaten, eta ni tratamendu psikologiko batera bideratu ninduten berriro; oraindik ere tratamendu horrekin jarraitzen dut, asko lagundu baitit etxearen agintea neure gain hartzen eta semea jokabidez aldarazten.

Etxebizitzarekin eta laguntza ekonomikoekin arazo batzuk izan arren, lanirek uste dut tratu bikaina eman diotela eskaini dizkioten zerbitzu guztietan, eta izan dituen koordinazioarekin eta estaldurekin ere oso pozik dago; hala ere, badaki bere bizipena oso gogorra izan dela, eta uste du laguntzarik gabe ezin izango zuela pairatutako guztia gainditu, behega jo zuenean oso gaizki baitzegoen.

Niri hain ondo joan zaidanez, nire lagun bat ere animatu nahi izan nuen laguntza eskatzera, txikitan sexu indarkeria jasan baitzuen. Eta baita duen neskatoagatik ere, oraindik txikia da eta. Nik neure kasua jartzen diot adibide gisa, baina tratu txarrak ematen dizkion gizonarekin

jarraitzen du berak. Neskatoaren bizitza arriskuan zegoela susmatzen nuen, eta gizarte langileari eta deitzen zidan ertzainari kontatu nien zer gertatzen ari zen. Aitak tratu txarrak ematen zizkiola ukatu zuen denbora luzez, eta beti esaten zuen neskatoaren kolpeak jolasten hartzen zituela.

Harekin dena joan zen motelago, beharbada erasotzaileak aurrekari gutxi zituelako, baina azkenean atxilotu eta kartzelan sartzea lortu zuten. Auzokide batekin hitz egin nuen, jakinaren ganean egon zedin eta Ertzaintzari dei ziezaion, kolpeak entzuten bazituen. Herrian gauza jakina zen, baina inork ez zuen ezer egin, beharbada bazekitelako biek drogak kontsumitzen zituztela.

Alabarengandik bereizi dute, alaba orain izeba batekin bizi da eta nik noizean ikusten ditut. Bikotekidea kartzelatik noiz aterako zain jarraitzen du nire lagunak. Hura jada ez dut ikusten, dezepzionatu egin nau.

lanirek, bere lagunaren ingurune gisa, bien istorioen arteko aldeak ikusten ditu, baina ezin du horren arabera jokatu, hau da, haren lagunak bere erritmo propioak dituela eta indarkeriatik irteteko denborak errespetatu egin behar direla ulertzeko behar adina pazientzia ez du. Kasu horretan, harengatik jarduten du harekin jardun ordeaz, eta emaitzak ez dira onak.

Behar izan zuenean, laguntza zabala jaso zuen berehala, eta orain uste du horrek beste emakume batzuentzat ere balio dezakeela; baina, agian, eta hark dioen bezala, txikitan izan zuen zaurgarritasun egoera zela-eta, inguruneak beste modu batez erreakzionatu du, eta aktibatuta egin da berari laguntzeko, are gehiago mendetasun maila handia duen haur baten ama izanik. Biktimak iruditeria sozialaren biktimizazio eskemei erantzuten dien istorio tristea da.

4.1.4. Narratiba feministik eta laguntza kolektibotik egiten denean

Ainarak, beren istorioa kontatu duten beste hiru emakumeek ez bezala, ez zuen indarkeria fisiko larririk jasan, haren bikotekide ohiak harremanaren une batean edo bestean (batez ere amaiera aldean) indar fisikoa erabili bazuen ere. Bere bigarren bikotekidearekin pairatu zuen indarkeria manipulazio emozionalaren eta jokabide

oldarkor pasiboen laburpen bat izan zen, eta asko kostatzen da indarkeria psikologiko mota hori identifikatzea; ikuspegi feministatik, berriz, errazago antzeman daiteke. Ainarak bazuen perspektiba hori, bere lagun taldeak ere bai; eta, hala ere, denbora behar izan zuen, eta urte batzuk igaro ziren harreman hura eten ahal izan zuen arte.

Duela hamar bat urte iritsi nintzen Andoainera, alaba txikiak 3 urte zituenean, eta zaharrenak 10. Kultur proiektu handi baterako egiten nuen lan, eta lanagatik dezente bidaiatzen nuen; horrek krisi bat eragin zuen nire bikote harremanean, nire alaban aitarekin alegia, eta azkenean banandu egin ginen. Gizartearen diskurtso orokorrak, emakumeak autonomo eta burujabeak izatera animatzen baditu ere, emakume burujabe eta ekintzailea izateagatik bai gizartean bai familian zalantzan jarri nautelako sentrazioa dut.

Banandu eta gero, 2015ean, beste herrialde bateko gizon bat ezagutu nuen lantokian, oso dibertigarria zen, garrantzi gutxi ematen zien aldedi materialei, eta... maitemindu egin nintzen. Oso azkar gertatu zen dena, denbora asko eman genuen bikote gisa, alabek ondo hartu zuten —hori niretzat funtsezkoa zen— eta elkarrekin bizitzen jarri ginen.

Ainarak beti bete ditu postu garrantzitsuak besteren kontura lan egin duenean, eta M-ekin bikote proiektu bat planteatu zenean (ezkontzea barne), bere alabak ekonomikoki babestea eta ondasun banantze erregimenaren bidez ezkontzea planteatu zuen. Horren arrazoia da M-k ez duela ia lanik egiten, eta ondorioz, ez du diru sarrera-erregularrik. Beren bikote bizitza berrirako baliabide ekonomikoak ekartzen hastera animatu zuen Ainarak, etxe bat erostea barne. Etxebizitza hori, azkenean, Ainararen aurrezkiekin eginiko inbertsio bat izango da, eta bikotekidea hipotekaren titularra izango da.

Autonomoa naizenez, niri ez didate hipotekarik ematen; baina berari bai, 400 euroko soldata irabazi arren. Etxearen eskriturak egin genituenean, jabetzaren % 70 nire izenean jarri genuen, eta gainerako % 30 haren izenean; baina bankuarentzat zordun solidarioak gara, hau da, etxea saltzen bada, zorra eta mozkinak proportzio berdinetan banatuko dira. Itun bat egin genuen:

*hipotekaren kuotak eta etxeko gastuak berak ordaindu behar zituen;
baina hori ia inoiz ez zen betetzen, diru gutxi irabazten baitzuen.*

Etxeko gastuei eta mantenimenduari buruzko eztabaidak gero eta ohikoagoak izaten dira; eta Ainarak presionatzen duenean gehiago lan egin dezan eta diru gehiago irabaz dezan, egoerak okerrera egiten du. Kasu horietan, bikotekidearen jarrera hainbat egunez desagertzea da, non dagoen inori esan gabe; bikote harreman bat baino gehiago, nerabe errebelde batekin harreman bat duelako sentrazioa du Ainarak, eta lotsatu egiten da; harremanaren dinamika hori ezkutatu egiten dio bere inguruneari, baina bikotekidearen absentziak antsietatea sortzen dio eta gero eta txikiagoa sentitzen da. Etxebizitza erosi eta handik pare bat urtera, Ainarak jakin du komunitateari ez ordaintzeagatiko zor handi bat daukatela (diru hori hark berak ematen zion bikotekideari, baina ez zuen horretarako erabiltzen). Egoera horrek ika-mika gogorra piztu zuen; eta jarraian, bikotekidea bere jatorrizko herrialdera itzuli zen. Berriro ere, Ainarak gertaerak ezkutatu ditu.

Hala ere, lagunek susmatzen zuten harremana ez zihoala oso ondo, antsietate handia zuela ikusten baitzuten (bat ere normala ez Ainararengan). M Ainararen ingurunearekin mantentzen saiatzen den harremanari buruz lagun haietako batek egiten duen narrazioa interesgarria da. M ez da inola ere izan bere bikotekidearen harremanak oztokatzen dituen abusatzaile prototipo mota hori; aitzitik, Ainararen bizitzan garrantzitsuak diren pertsonak identifikatu ditu eta haiekin harremanetan jarri da. Nirekin horrela izan zen; bazekien Ainara eta biok lagun minak ginela eta "ahizpa zaharra" deitzen zidala. Lagun honek kontatzen duenez, oso harrituta zegoen, M beti saiatzen baitzen bere buruaren irudi ona ematen: gizon erromantikoa, bere bikotekidearen ongizatea besterik nahi ez zuena.

Lagun horrekin, eta baita taktika bera erabiltzen saiatutako beste batzuekin ere, M-k ez zuen arraskarik izan. Haiek Ainararen lagunak ziren eta argi utzi zioten ez zutela haren istorioaren bertsioa sinesten. *Liskar baten ondoren, beti agertzen zen lore sortekin, barkamena eskatuz eta hausnartzeko espazio bat behar duen gizon gogoetatsuarena egiten.*

M ezagutu ala ez, lagunak engainatzeko ematen zuen irudiak Ainara, ordea, nahasi egiten zuen; eta gertatzen zitzaiona egunkari batean idatziz jasotzea erabaki zuen Ainarak. Gertaerak nonbait jasota uzten ez bazituen, beldur zen ez ote zituen aurrerago

beste ikuspegi batetik ikusiko edo ez ote zituen ahaztuko; egia esan, gertaerarik bortitzenak bere oroimenetik ezabatuak ditu.

Pandemiak eta lehen hilabeteetako konfinamenduak argi ikusarazi diote bera dela bere buruaren eta bere alaben erantzule ekonomiko bakarra; eta une horretan bertan ulertu du ez duela M-rekin jarraitu nahi, ez diolako inoiz lagunduko berak nahi lukeen moduan. Haren jatorrizko herrialdean pandemiagatiko debekuak kentzen hasi zirenean, M Andoaindik gertu dagoen herri batean geratu da jatetxe batean lan egiten, eta ondorioz, denbora asko ematen du etxetik kanpo. Elkarbizitza urriagotu bada ere, arazoekin ez da gauza bera gertatu. Etxeko gastuekin lagundu gabe jarraitu arren, M-k itsasontzi bat erosteko gehiegizko gastu bat egin duela jakin du Ainarak. Bien arteko harremanari ultimatum bat eman ondoren, M mehatxuka hasi zaio; bai Ainara bai alabak izorratuko dituela esan dio, lantokian haren izen ona belztuko duela, etxea eta daukan guztia kenduko dizkiola, hura bera arduratuko baita mundu guztiari esateaz erotuta dagoela.

Une horretatik aurrera, indarkeriazko uneak areagotu egingo dira, baina lagunak kezka eta ezinegona ere areagotu egingo dira.

Alarma bat piztu zen: gure lagun bat gaizki pasatzen ari zen, lagun horren alderdi ahulago bat deskubritu genuen, ez zuen hitzekin laguntza eskatzen baina ezinegona sortzen zigun, eta guk ahalik eta laguntzarik gehien eskaini nahi genion. Gogoan dut, behin, oportetara gindoazela eta oso une kritikoa zela, M ordurako etxetik alde eginga baitzen, baina artean giltzak zituen; orduan, Ainarari gure etxeko giltzak eman genizkion, nahi edo behar zuenerako. Bakarrik ez zegoela sentiarazi nahi genuen.

Jendaurrean beste eraso fisiko bat jasan ondoren, M uzteko unea iritsi dela erabaki zuen. Lagunentzat lasaigarria izan zen. Lagun guztiek errespetatzen zituzten Ainararen erritmoa eta erabakiak, baina gero eta kezkatuago zeuden haren segurtasunagatik eta osotasun fisiko eta mentalagatik. Orduan, beste lagun batek gizarte zerbitzuetara jotzera animatu zuen, iraganean hura bera ere eraso baten biktima izan zelako eta laguntza eskatu eta jaso zuelako.

Hasieran, eta harremana uzteko erabakia hartuta bazuen arren, Ainarari asko kostatzen zitzaion beharrezko babesak gestionatzea, batez ere M-ren aldetik presioak hartzen hasi zenean: ez zuen bakean uzten, mezuekin bonbardatzen zuen denbora osoan, mehatxu egiten zion eta, ondorioz, haren beldur izaten hasi zen. Bere lagun taldearen baldintzarik gabeko babesa jasotzen jarraitzen zuen, baita alabena eta familiarena ere; dena den, salaketa jartzea erabaki zuenean, familiaren babesa falta zitzaiola sentitu zuen, nahiz eta lagunek une oro hari laguntzen jarraitzen zuten.

Unea iritsita, Ainararen lagun taldea laguntza legal eta psikologiko bila mugitzen hasi zen (baliabide horiek hark berak ordaindu zituen, horrelako zerbitzuak arlo publikotik eskuratzeko bideak oso motelak direla iruditzen zitzaiolako); prozesuan aurrera egiten jarraitu nahian, gizarte zerbitzuetara hurbildu zen, eta horrek inpaktu handia eragin zion, pairatzen zuen indarkeria bat-batean egiazkoa zela konturatu zelako. Hasieran, ez zuen bere burua behar bezala babestuta sentitzen, gizarte zerbitzuek haren egoera premia txikikotzat jo zutelako; izan ere, tartean ez baitzegoen adingaberik, eta haren bizitza arriskuan ez zegoela baloratu zuten. Behin eta berriz eskatu ondoren, doako laguntza psikologikoa eta poliziaren babesa aktibatatu ziren.

Erabakia hartuta bazuen ere, salaketa jartzea oztopoz betetako prozesua izan zen Ainararentzat, abokatuak berak ez baitzuen horretara bultzatzen, indarkeria psikologikoa frogatzea zaila zela iritzita; dena den, salaketa jarri zuen, eta oso esperientzia gogorra bizi izan zuen epaiketa azkarrean epaileak, (errehabilitatutako tratu txarren emaleen elkarte bateko kide zen batek) gaizki tratatzen zuela sentitzen baitzuen, esaten zuen guztia zalantzan jartzen zuen, eta aurkezten zituen probei ez zien kasurik egiten... Gero, bere bikotekide ohiari deklaratzeko entzun behar izan zion, erotuta zegoela eta dena asmatua zuela esanez.

Denbora horretan guztian, eta indarkeriatik ateratzeko bidean aurkitutako oztopoak gorabehera, bere oinarriko babesa bere ingurunea zela sentitu zuen. Lagunek beren esku zegoen guztia egina zuten, bururatu zitzairen guztia, eta orientazioa falta zitzaielako sumatzen bazuten ere (inoiz imajinatuko ez zuten egoera ezezagun batean aurkitzen baitziren), Ainarari sinesteko eta baldintzarik gabeko laguntza emateko prest zeuden. Maite zuten eta zaindu egiten zuten, bazekitelako berak ere familia zaintzea lehenetsiko zuela; beraz, lagunartea da Ainararen euskarri nagusia. Ez ziren elkartzen hori nola egin aitzakitzeko, Ainarak behar duenarengana jotzen baitu unean uneko egoeraren arabera, baina guztiek esaten dute gauza bera: eskatu izan balu, elkartu egingo ziratekeen hori

dena hobeto planifikatzeko. Behin eta berriro argi utzi zioten berarekin zeudela eta beti egongo zirela hor berari aurrera egiten laguntzeko eta bizipen horretatik indartsuago atera zedin.

4.2. Narratiben analisia

Emakumeen narratibak berreskuratzeak eta egin dugun bezala aurkezteak dagoeneko ikuspuntu bat hartzea eskatzen duen arren, lau emakume horien istorioak eta hari narratibo komunak bilatu nahi genituen, eta horretarako, kontaketak hiru zatitan banatzea erabaki dugu: lehendabizikoan, haien arteko aldeak gorabehera, ikusi dugu guztiek biltzen dituztela ingurunearen mezurik indartsuenak, batez ere indarkeria pairatzeko eta indarkeriatik ateratzeko orduan zeregin garrantzitsu bat bete zutenak.

Biktima gisa duen pertzepzioa, sinesgarritasun autoerreferentziala eraikitzeak beharra (eromenaren estigmari aurre eginez), lotsa eta isolamendua gainditzea eta ingurune hurbilena babesteko premia dira lau istorioek komunean dituzten alderdiak, eta horietan biktima bakoitzaren subjektibotasuna jartzen da agerian.

Bigarren atala, berriz, ingurunearen biktimak eta biktimaren inguruneak egiten duten narratibarekin lotuta dago. Bigarren parte hau kasu bakar batean bakarrik aztertu ahal izango dugu.

Eta, azkenik, erakundeen babesari buruzko narratiba dago, non aldatzen baitira gehien norberaren esperientziak; beraz, pertzepzio desberdin horiek zergatik gertatzen diren azaltzen saiatuko gara, biktima bakoitzak erakundeei buruz eta bereziki sistema judizialari buruz dituen exigentziez eta itxaropenez harago.

4.2.1. "Ni ez naiz biktima bat"

Genero indarkeriaren biktimak zirela onartzeko orduan, elkarizketatutako lau emakumeek harreman konplexua izan dute. Lau kasuetan, ez ziren adiera horrekin identifikatzen; beren bizipenetatik oso urrun geratzen zen. Zergatik? Indarkeria matxistaren biktimen konstruktua sozialak arreta jartzen duelako ezaugarri pertsonaletan eta erlazionatzeko moduetan, beste pertsona baten esku (bikotekidearen esku) jasan dituzten ekintza gaitzesgarri eta delituzkoetan jarri beharrean.

Urte askotan, genero indarkeria bikote harremanaren parte balitz bezala aztertu izan da, emakumeak eurak nahastuz eta erasotzaileei irtenbide bat eskainiz euren indarkeriaren erantzule izan ez daitezzen. Bikote harremana bi pertsonak osatzen dutenez eta haien dinamikak elkar loturik daudenez, badirudi indarkeriak bi pertsonekin duela zerikusia — gizonen indarkeria eragin izanaren ardura emakumeei leporatzen ez zaienean, jokabide probokatzailea izan dutela argudiatuz—.

Gauzak horrela, emakumeak esanekotzat eta aldi berean zirikatzailetzat aurkeztuak dira harreman simetriko batean, non bi aldeek rol bera jokatzen duten; emakumeak autoestimurik gabe aurkeztuak dira (autoestimua kontzeptu integral bat balitz bezala edota emakumeak emozionalki horren mende baleude bezala), lotura emozionalek pertsonentzat duten garrantzia alde batera utziz. Horrek guztiak ez du oso irtenbide onik ematen emakumeak ulertzeko, batez ere nahaspila analitiko horiek indarkeriaren erantzunkide bihurtzen dituelako.

Are gehiago, "bikote indarkeria" esapidea bera agertzen da, ez indarkeria hori erabilia den eremu modura, harremanaren zati modura baizik. Erasoa pertsona batengandik abiatzen da beti, eta eraso egiten duenaren erantzukizun eksklusiboa da. Erasotzaileak hainbat arrazoiengatik erabakitzen du indarkeria erabiltzea, besteak beste, bikotekidearen jokabidea kontrolatzeko irteera azkarra eta eraginkorra delako, berehala eragina duelako eta biktimaren ondorengo portaera baldintzatzen duelako.

Indarkeria alde bakarrekoa da, eta jasaten duenak horren aurrean erantzuten du. Erantzuteko moduak askotarikoak dira, baina, oro har, eraso fisiko, psikologiko, sexual eta ekonomikoak edo une desberdinetan egindako eraso guzti horiek lesio psikiko handi bat eragiten dute, eta lesio horrek emakumeen gaitasunak kaltetzen ditu, beren jokabidean azalpen bat bilatzen saiatzen baitira (azalpenik ez badago ere).

E-k, B-k, lanirek eta Ainarak, elkar ezagutzen ez bazuten ere eta bikotekideen indarkeria modu desberdinean bizi izan bazuten ere, biktima izateak esan nahi zuenaz antzeko ideia zuten, eta ideia hori genero indarkeriaren biktimengan proiektatu da: emakume otzanak, pobreak, kolpatuak, kalteberatasun egoeran daudenak, portaera-arazoak dituztenak, etab.

Idea horretan ez zuten beren burua islatuta ikusten, ez ziren otzanak, ikasketadunak ziren, batzuek indarkeria psikologikoa "baino" ez zuten pairatzen... Euren burua biktimatzat jotzeko eta biktima gisa laguntza eskatzeko, denbora luzea behar izan dutela ikustea deigarria da; gainera, zenbait kasutan, horrek are gehiago zailtzen du haien egoera, era askotako arazoak gehitzen baitzaizkio indarkeriaren bizipenari berari.

Biktima guztiak sinesgaiztasun sentimendu bizia dute (eta haien inguruneak ildo berari jarraituko dio). Haiak ezin dira biktimak izan, "hori" beste batzuei gertatzen zaie, ez haiei. Biktima izateko, indarkeria fisiko larria jasan behar duzulako ideia oso errotuta egon badaiteke ere, indarkeria hori emakumeak berak eragin ez duelako ideia ez da beti irmoa izaten, batez ere bikotekidea emakumea desahalduntzen duten argudio berriak ematen hasten denean: emakumeak bera aukeratu du, gaizki aukeratu ere; beraz, gizonak erabiltzen duen indarkeriaren erantzunkide da emakumea.

Bikotea osatu zutenean maiteminduta zeudenez edo, behintzat, bikotekide biolentoa izango zela espero ez zutenez, indarkeriazko gertakarien aurrean sinesgogortasuna erakustea da lehen erreakzioa; eta hurrengoa, bizitakoa minimizatzea edo erreprimitea. Ukapen hori biziraupen mekanismo garrantzitsua da, biktimei sentiarazten die beren bizitzaren gaineko kontrola dutela, ez direla ergelak, eta ez dutela beren bizitzak bideratzeko gaitasuna galdu.

"Begiak ixten dituzu... zaila egiten zaizu sinestea egia dela... hori telebistan gertatzen da, ez zuri...", komentatzen dute; aldiz, sinesgaiztasunak bide ematen dio egia delako usteari, bikotekidearengan ondo ez dabilen zerbait dagoelako usteari. Baina, orduan, arazoak dituztela esaten diote beren buruari, ez dute onartzen biktimak direla. Bikote arazoak izateak biktimak kokatzen ditu normaltasunean, bikote guztiak eztabaidatzen dutelako eta, orduan, horrekin identifika daitezke. Inguruneari arazoak dituztela baieztatzea inguruan duten tentsioa arintzeko ere baliagarria da. Ainararen kasuan izan ezik, alertan jartzen diren lagunak, kontaktzen diena ikuspegi kritiko baina ulerkor batetik entzuten duten lagunak gutxi izaten dira.

Nik oso garbi neukan haren bikotekidea oso manipulazko zela, eta zalantzan jartzen nituen nire lagunak haren portaeraz ematen zizkidan azalpenak. Halako batean, gauzak okertzen hasi ziren, eta nire lagunak banantzea erabaki zuen, baina gero atzera egin zuen. Parte hori da ulertzen zailena, hori egon behar duzulako, pazientzia izan eta haren espazioa errespetatu behar duzulako, harremana oso gaizki amaituko dela badakizu

ere; niretzat funtsezkoa zen gure adiskide harremana gordetzea eta haren erabakia errespetatzea, begirada kritikoari eutsiz eta berari gogoetaraziz eta pentsaraziz, baina presionatu gabe".

Ainararen lagun horrek egiten zuena oso pertsona gutxiren esku dago; hala ondorioztatzen da, behintzat, gainerako elkarrizketetatik eta teknikarien esperientziatik. Emakumearen sinesgarritasunari eusteko eta, aldi berean, bere prozesua egin dezan behar den pazientziari eusteko, trebetasun zehatzak behar dira (lagunari diogun afektuaz gain).

Gainera, ingurunearen eta biktimaren beraren sinesgaiztasuna onartzen zaila den beste baieztapen batetik elikatzen dela ohartu gara. Bera biktima bada, hura erasotzailea da. Hura? Hain jatorra, hain xarmagarria, bere bikotekideaz hain arduratua beti... Emakumeei beraiei kostatzen egiten egiten zaie sinestea tratatu txarrak ematen dizkiola min emateko asmoz, eta barkatu egiten dute; beti dago desenkusa bat edo beste eskura, batez ere bikotekidea halako asko emateko pronto agertzen delako. Horregatik, emakumeei kostatzen zaie erasotzaile baten biktima izatea, eta nahiago dute arazoak dituen bikotekide bateko kide izan.

Niri gertatzen ari zait hau? Zerbait egiten ari naiz, niri gerta dakidan? Sinesgaiztasuna eraso fisikoetaraino iristen da, hau da, besteei indarkeria ukatzeaz gain, beren buruari ere ukatu egiten diote, indarkeriaren ondorio garbiak agerian egon arren: ubeldura bat, kolpatutako gorputzaren ataleko mina.

"Tratu txarrak jasaten nituen garaian ez nion inori ezer kontatzen, ez nion inori esaten: nire mutil lagunak tratatu txarrak ematen dizkit; gaur mutil lagunak bortxatu egin nau; ez nago ondo; beldur naiz. Ezin duzu hori kontatu", gogoratzen du B-k. Eta ez zuen kontatzen sinesgarritasunik izango ez zuela uste zuelako, eta zuzen zebilen horren beldur izateko. "Jo bazintuen, zerbaitengatik izango zen; zerbait egingo zenion", esan zidan ezagun batek horren berri izan zuenean, baina nik ez nion ezer kontatu, ez dakit zer zekien baina bere iritzia eman zuen. Horrek mundu guztia eta gizarte osoa gorrotatzea eragin zidan".

Ingurunearekiko mesfidantzak eta biktimen sinesgaiztasunak berak garamatza onartzera, ezen, indarkeriaren sekretua agerian uztea berez gertaera traumatikoa bihurtzen dela. B-ren eta E-ren kasuan, biek eraso fisiko oso larria jasan zuten, eta eraso

horrexek azaleratu zituen tratu txarrak. Ianireren eta Ainararen kasuan, berriz, suntsipen mehatxuak eta, batez ere, seme alabei kalte egiteko mehatxuak dira.

Lau kasuetan, kaltearen egiaztapena eta beren ardurapean duten pertsonen gerta dakiekeenarekiko kezka dira bikote arazoaren narratiba alde batera uztera eramaten dituenak, eta hortik aurrera, sentitzen duten beldurrak berak bultzatzen ditu zerbait egitera.

4.2.2. "Ahobero bat naiz edo burua galtzen ari naiz"

Marcela Lagardek (2015) dioenez, eromenaren gatibutzak emakume guztiak hartzen ditu bere baitan, nahiz eta eromen hori biktimen egoera pertsonal, sozial eta kulturalaren arabera aldatzen diren gradu eta formetan agertu. Egilearen arabera, eromenaren gatibutzara iristen da espezializazio femeninoa muturreraino betetzeagatik, emakumeen gaitasun kritikoa deuseztatzeagatik, besteena eta besteentzat izatea eskatzen dien estereotipoekiko fideltasuna puzteagatik eta arrazionaltasun patriarkalak ezarritako betebeharra ez betetzeagatik.

Gatibutza horretan, gizonak dira arrazoimenaren eramaileak —logozentrismoa—, eta beraz, balioetsitako eta aintzatetsitako hitzaren titular bihurtzen dira; eta, ondorio logiko gisa, hierarkizatzaile bitar aurkakoen sistema batean, emakumeak adierazten duen hitza —zeinean, bere izaeragatik beragatik, emozioak eta grinak baitira nagusi— devaluatuta, gutxietsita eta balio gabetuta dago.

Aipatzen ari garen lau emakumeen kasuan, guztiak sentitu ziren ero eta ahobero, eta halakotzat jo zituzten (biefere haien bikotekideek itxuraz erakusten zuten lasaitasuna aintzat hartuta). Era askotako erasoak jasan dituztenean, emakumeei eskatzen zaie arrazionaltasunari eta lasaitasunari eustea; eta haien antolaketarik eza (eraso horien ondorio dena) da haien zentzuna zalantzan jartzen duena.

Baieztape horren alderdirik garrantzitsuenetakoa bat hau da: biktimek beren burua eta sentitzen dutena zalantzan jartzea. Ainarak bere burua behartu zuen egunkari bat idaztera, gertatzen ari zenaz ziur egiteko, benetakoa zela eta ez zuela ezer puzten egiaztatzeko.

Barne fidagarritasunik eza etengabe indartzen dute bai tratu txarrak ematen dituenak

bai lagunen eta senideen inguruneak, eta hortik sortzen da ohiko imajinarioa: "emakumeek beren onetik ateratzen dute dena; beraz, ezin zaie besterik gabe sinetsi, ezta eraso batetik sendatzen ari direnean ere". Gizonak askoz sinesgarriagoak dira, eta, ondorioz, beren senide gehienak eta emakumearen ingurune afektiboa beren narratibarako irabaztea lortzen dute. Gizonak badakite sinetsiko dietela, badakite emakumeak nola atera beren onetik, haien alderdirik ahulenei eraso eginez eta erotuta sentiaraziko dituzten portaerak haiengan sorraraziz.

Une batean edo prozesu osoan sortzen den eromen sentsazioa ere istorio guztien alderdi komuna da. Hasiera batean, kanpotik jasotzen dituzten erantzunak honako hauek izaten dira: "ziur al zaude?, ¿ez ote zara sentikorregia?", "bera horrelakoa da, ez du asmo txarrez jokutzen". Erantzun horiek biktimen barne fidagarritasunik eza areagotzen dute, eta errealtateaz egiten duten interpretazioa zalantzan jartzen dute.

Arazoaren muina hau da: biktimak alderdi deskontrolatu hori erakutsiko ez balu eta gertaerak kontatuko balitu emoziorik gabeko gertakari aseptiko batzuk balira bezala, sinesgarritasuna galduko luke, kontatzen duenak zirrarak eragingo ez balu bezala. Nolanahi ere, emakumeen narratibak ez du sinesgarritasun sozialik, eta, horregatik, indarkeria matxistaren aurkako erreparazio neurrien parte gisa eraiki behar da.

4.2.3. "Lotsatu eta bakartu egiten naiz... kontrolatu eta isolatu egiten nau. Bakarrik nago"

Elkarizketatutako lau emakumeek komunean duten beste alderdietako bat honako hau da: beren esperientziari eta esperientzia horretatik ateratzeko ahaleginei aurre eginez, bakarrik egotera bultzatzen dituzten mekanismoez ohartzea. Bakarrik sentitzen dira, baina ez beti; nolanahi ere, badakite zergatik iritsi diren egoera edo sentsazio horretara: alde batetik, bizi duten egoera beren inguruneari kontatzeak sortzen dien lotsagatik, eta ondorioz, gero eta gehiago bakartzen dira (egoera gero eta jasangaitzagoa egiten zaien heinean); eta bestetik, bikotekideak haiek gutxietsi, kontrolatu eta bakartzeko azpilanetan aritzen direlako. Emakumeek sentitzen duten bakardade hori (hurbileko pertsoneri laguntza eskatzea zailtzen diena) horren emaitza da.

Dena ondo doala hainbestetan erantzutearen poderioz, ez dute beren buruan legitimitaterik aurkitzen esateko gezurra esan dutela eta beren bikotearen istorioa ez zela soilik beste edozein bikoteraren arazo puntual bat. Bikotekideari (ezkontzan ala ezkontzatik kanpo) ezin eusteagatik sortzen zaien porrot sentsazioa, erresistentzia faktore bat da bizi

dutena kontatzeko. Emakume horiek bizitza osorako elkartu ziren bikotekidearekin, eta batzuek banantzea eta dibortziaztea normalizatzen badituzte ere, eta beren bikotekide ohiekin harreman ona izaten saiatzen diren arren —batez ere seme-alabak dituztenean—, porrotaren mamua oso erreal bihurtzen da.

Lagunen testigantza jaso ahal izan zen kasuan, porrot sentimendu horren sentsaziorik ez zegoen, beharbada genero agindu batzuk eta familiari buruzko beste batzuk ordurako urratuta zeuzkan lagun talde bat zelako, eta sentipen horrek ez zien horrenbeste eragiten. Ainararen lagunak iritzi honetatik abiatzen ziren: harreman batean egon behar da ondo egoteko; eta bera ondo ez bazegoen, ez zuen zertan jarraitu.

Hari galderak egiten saiatzen nintzen, bere buruari planteatu ziezaion ea pertsona horrek ematen zion berak behar zuena. Gero eta gauza gehiago ari ziren batzen; bazirudien bikotekideak, hitz emandako bizitza ez, baizik beste bizitza bat nahi zuela; eta nik ahal nuen guztia egiten nuen nire lagunak bere egoerari buruz hausnar zezan, nahiz eta berarentzat oso gogorra izan, beti saiatzen zelako egoeraren errua bere buruari egozten: "Nire aldetik gehiago jarri behar dut; saiatuagoa, ulerkorragoa izan behar dut".

Bizitza partekatzeke inor ez izatearen bakardadea mamu bat dela ematen du, baina mamu horren indar sinbolikoa indar erreala baino handiagoa da; izan ere, lau emakume horiek bakarrik zeuden: bai bikotean bai beren seme-alaben hezkuntzan bakarrik zeuden. Hala ere, inguruneak eta feminitatearen aginduetatik barneratu duten horrek behin eta berriz itzultzen die bikotekide bat izatearen eta mantentzearen garrantzia, harreman horren kalitatea alde batera utzita.

4.2.4. "Nire arazoak dira, ez dut beste inor tartean sartu nahi"

Azkenik, emakumeek aitortzen dituzten faktore indibidualetan, mezu garrantzitsu hau dago: ez dute beste inor kaltetu nahi beren kontuekin. Inor kaltetu nahi ez izate horretan garrantzi berezia hartzen dute seme-alabek. Emakumeei barneratzea gehien kostatzen zaiena beraien isiltasunak eta gertuko jendearengan eragiten duten erantzunik eza da. Elkarizketatutako emakumeetako batek kontatzen du nola ikusten duen bere lagun batengan (lagun hori ere biktima da) bere buruarengan ikusi ezin zuen erresistentzia. Beste batek dio, ezen, azkenean isiltasuna hautsi zuenean, bere inguruan berearen antzeko esperientziak zenbat emakume bizi izan zituzten ikusteaz harrিতuta geratu zela.

Beste batzuk zaintzeko emakumeek duten gaitasuna, eta autosufizientzia balio gisa ikustea, emakumeei babesa eskatzen laguntzen ez dieten elementuak dira. Gizartean hain goraiatuak eta sustatuak diren feminitatearen ezaugarri horiek kartzela bihurtzen dira haientzat, eta haien sufrimendua luzatzen dute denboran.

Ingurunea ez kaltetzeko arduraren horretan, garrantzi handiagoa hartzen du familiak lagunek baino; hori dela eta, familiari gutxi kontatzen zaio, eta beste erremediorik ez dagoenean. Haien afektua dutela jakin arren, ezin dute beti gauza bera esan haien ulerkortasunaz. Egia esan, familiarentzat —eta batez ere biktimen amentzat— alaben bizipena onartzeak ama gisa izan duten gaitasuna zalantzan jartzera eramán ditzake.

Hipotesi hori ezin izan dugu azterlan honetan egiaztatu, biktimen amak elkarrizketatu ezin izan ditugulako, baina gaia planteatu egin da, indarkeria matxistaren belaunaldiz belaunaldiko transmisioa aztertzean planteatu den bezala. Amek alabei esaten diete zer ez duten onartu behar harreman batean, baina, aldi berean, alabak hezten jarraitzen dute harreman hori mantentzearen garrantzian, eta zeregin horren arduradun nagusiak beraiek direla pentsarazten diete.

Emakumeen autonomiari buruz hainbat esparrutatik (baita diskurtso feministatik ere) jaurtitzen diren mezuetan, halaber, sakondu beharra dago. Emakume bakoitzak bere bizitzarako zer nahi duen jakitea ahalbidetuko duen autonomia pertsonal bat izatea desiragarria bada ere, beti presente egongo den jokaleku bat loturaren eta autonomiaren arteko oreka izango da (jokaleku hori bizi zikloaren etapa desberdinen arabera aldatzen bada ere).

Orain arte, badirudi diskurtso feministan autonomiaren aldeko diskurtsoa nagusitzen ari dela, eta diskurtso hori erraz nahasten da buruaskitasunarekin eta zenbait ideia okerrekin, adibidez, ez dugula inor behar (hots, bikotekiderik behar) zoriontsu izateko. Bikotekiderik gabeko bizitza zoriontsuak eraiki daitezkeela egia bada ere, hori ezin da lortu lotura emozional biziak sortu gabe. Emakumeen zapalkuntzen ordezkariak narraitibetan, horregatik da hain garrantzitsua honelako balioak kontuan izatea: zaintza emozionala, bizitza egonkortzeko loturen garrantzia, etab. Bestela, alternatiba narraitiboa ezin izango da koherentea izan, eta ez da oso erakargarria izango emakumeentzat, batez ere indarkeriazko harreman kronifikatuetan edo identifikatzen eta konpontzen zailak ziren indarkeria-harremanetan murgilduta egon direnentzat.

4.3. Ingurunearen eta ingurunearekiko bizipena.

Aipatu ditugun zailtasun guztiak indartu egiten dira elkarrizketatutako emakumeek ingurunetik jaso dituzten kanpoko mezuekin eta, batez ere, familien eta lagunen jarrerekin. Azken kasu horretan adierazi behar da, ezen, elkarrizketatutako emakumeetako batek bakarrik gorde zituela bikotekidearekin ezkondu aurretik zituen lagunak. Beste hirurek galdu egin zituzten hainbat arrazoirengatik, baina neurri handi batean erasotzaileak urrundu zituelako. Lagunak funtsezkoak izan ziren haien gorde zituen emakumearen kasuan, lagunei esker ez baitzen horren bakarrik sentitu salaketa-prozesuan; aitzitik, lagunengan indar bat aurkitu zuen, indarra berarengan eskasten ari zenean. Erreferente sozial hori galdu zutenek zailtasun gehiago izan zituzten laguntza bilatu edo salaketak jartzeko prozesuak aktibatzeke orduan, eta oraindik ere bakardade sententzia beren baitan daramate.

4.3.1. "Lagundu egin zidaten, baina ez dugu gaiari buruz hitz egiten"

Elkarrizketatuek lotura-mota desberdinak dituzte jatorrizko familiekin. Batzuek lotura handia dute jatorrizko familiarekin eta laguntza-erreferente garrantzitsua da haientzat; beste batzuek, ordea, distantzia adeitsu bat gordetzen dute harekin, eta horren ondorioz, ez dute zirkulu hori kontuan hartzen eta gertatzen zaienaren berri ere ez diote ematen.

Biktimen familia-ingurunearen erantzunak ezaugarri komuna izan du: alabari, amari edo arrebari lagundu egin diote... pairatzen zuenaren berri izan dutenean, batez ere eraso fisiko bat izan denean. Batez ere prozesu judizialean lagundu diote, eta beste era bateko baliabideak eskaini dizkiote. Horrek ez du esan nahi zalantza eta gaitzespenak entzun ez dituztenik; eta seme alaba gazteen kasuan, jarrera anbibalenteak hartzen dituzte: alde batetik, argi eta garbi adierazten dute ama babesten dutela; baina, bestetik, aitarekin duten lotura ez dute erabat eten nahi.

Beste gauza bat ere badute komunean, nahiz eta esamolde desberdinekin adierazi: egoera gauza jakina denean, gaia ez da hizpidera ateratzen familia elkartzen denean. Elkarrizketatuetako bat harrিতa agertu zen, zeren, jatorrizko familiaren babesa sentitu bazuen ere, ez diotelako inoiz ezer galdetu, eta ez da gaiari buruz berriro hitz egin. Familiaren isiltasunak eta hermetismoak zapuztu egin dute bere burua azaltzeko eta

haien iritzia ezagutzeko zuen nahia; eta horren ondorioz, bere burua, familiaren aurrean duen sinesgarritasuna eta familiaren babesa zalantzan jartzen ditu.

Bestalde, jatorrizko familiaren erantzuna ere bat dator: familiako kide gehienak harengandik urrundu dira. Emakumeek ez dakite beren semearengan edo beren nebarengan sinesten duten ala ez, baina badakite, ezen, egoera ezagutarazten denetik —eta kasuren batean haren jatorrizko familiarekin harreman ona zuten arren—, harremanak hortxe bukatzen direla.

Jatorrizko familiekin gauza interesgarri bat gertatzen da: lehen, biktimak ingurune sozialean isiltasuna gordetzen bazuen, familiak indarkeria-egoera hori ezagutzen duen unetik, isiltasuna familian bertan errotzen da, eta handik aurrera indarkeriaren arazoa sekretu bihurtuko da besteen aurrean. Biktimaren jatorrizko familiarekin hori horrela da.

Erasotzailearen jatorrizko familiak indarkeria horren berri jakiteak zehazki nola funtzionatzen duen ez dakigun arren, emakumeek ziurtzat jotzen dute gizonak gertuko ingurune horren babesa jasoko duela, eta berari ez diotela sinetsiko. Ideia horrekin berretsi egiten da, ezen, odolezko lotura tratu txarren aurkako beste edozein iritzi etiko baino sendoagoa dela; hau da, baliteke erasotzaile baten familiak, egoera hori ezagutzen ez duen bitartean, biktima diren emakumeak modu abstraktuan babestea, baina inork ez du espero semea, neba edo lehengusua babesteari utziko dionik, familia-loturaren indarra lehenetsi egiten baita beste edozein kontsiderazioaren gainetik.

Familiaren nozio hori zalantzan jartzen hasi behar da, zeregin hori oso-oso zaila dela iruditu arren. Bestela, edozein ezbeharren aurrean elkartuta dirauen familiaren irudi horrek esan nahi du emakumeen giza eskubideak familia-harremanak baino garrantzi gutxiagokotzat jo daitezkeela, nahiz eta harreman horiek disruptiboak edo arazo iturri izan. Hori lortzeko, erasotzaileen familiak emakumeen narratibak baliogabetu eta indarkeriaren defendatzaile bihurtu behar dira, nahiz eta haien diskurtso soziala kontrako bidetik joan.

4.3.2. "Lagunek esan zidaten zer gertatzen ari zen"

Emakume elkarrizketatuen artean lagunak atxiki zituen kasu bakarrean, lagunak ikusarazi zioten zer bizi zuen eta zer-nolako bidegabekeria zen hura guztia; eta indarkeriatik ateratzeko haren euskarri nagusi bihurtu ziren. Deigarria da, hala ere, lagun horiek

gordetzea garesti atera zitzaiola, familiak eta gizarteak okerrago baloratu baitzuten handik aurrera. Berak kontatzen duenez, bere burua beti jo izan zuen emakume modernotzat, rol tradizionalak urratzen zituen emakumetzat, eta asertiboki jardun zuen bikote- eta ama-harreman mota desberdin bat eraiki nahian; horren ondorioz, bere garapen profesionalari eusten ere tematu zen, eta bere lanbideak zeregin garrantzitsuak izan ziren bere bizitzan.

Horrek guztiak, ordea, kritikak eragin zizkion, dena ez uzteagatik familiaz arduratzeko. Eta, orduan, bikotekidea —seme-alaben aita ez zena— irudi desegoki horretaz (emakumea familiaren sostengua izatea) baliatu zen bera gutxieteko eta bere burua biktimizatzeko. Batez ere, biktimak eskatzen zionean beren bizikidetzan itunduak zituzten akordio ekonomikoak betetzea.

Tratu txar emaileak biktimaren kontra gezurtatzen zuenean edota lagunak bereganatzen saiatzen zenean, lagunak ezkutu bat bezala jokatu zuten beti bera babesteko, eta zer pentsatzen zuten esaten zioten. Lagunak, haren ondoan tinko beti, gertatzen ari zenaz eta gertaerak interpretatzeko moduz bestelako ikuspegia edukitzen lagundu zioten, eta barne fidagarritasuna indartzeko aukera eman zioten.

Lagun talde horretan kontzientzia edota militantzia feminista bat bazegoen, eta horrek azaltzen du haien ekinbidea. Lagun taldeko batek gizon oldarkor batekin harreman bat zuela jakiteak hasieran harridura eragin zien arren, harridura gainditu egin zuten, alternatiba kontzeptualak zituztelako eta edozein emakume biktima izan daitekeela uste zutelako, baita beraien lagun hurbiletako bat ere.

Lagun talde hau eta argitasun hau garrantzitsuak dira, eta, zalantzarik gabe, biktima diren emakumeentzat talde afektibo solidario bat ondoan izatearen adibide ezin hobea da. Beste eragile batzuek zalantzan jarriko zaituzten prozesuan babestua eta sinetsia, ulertua eta lagundua zarela jakitea, oso garrantzitsua da; emakume guztientzat desiragarria izango litzatekeen erreparazio elementu bat da.

Emakumeek babes hori ez badute (indarkeriak berekin bakardadea ekartzen duelako), elkartasun eta laguntza-sare bat osatzea alternatiba politiko bat izan daiteke; pitzadurarik gabe inplikatzeko diren eta biktimak zalantzan jartzen ez dituzten sareak behar dira, biktimari bere buruaren irudi positiboa eta indarkeriaren azalpena lortzen lagunduko diotenak, errua haiei leporatu gabe.

4.3.3. Auzoko ingurunea

Elkarizketatutako emakumeek ingurunearekin alde zurretik zeukaten harremanaren zenbait ezaugarri aipatzekoak dira. Andoain herri txikia bada ere, denek ez zuten bertan egiten beren ohiko bizimodua, zela lanagatik zela bertan bizitzen denbora gutxi zeramatelako. Herrian bizitzen denbora gehiago zeramaten batzuek ere ez zuten harreman oso hurbilik bizilagunekin, beren bizitza egiteko leku nagusia —bakarra ez bazen— etxe barruan zegoela uste zutelako.

Elkarizketatu ditugun udal langileen eta emakume elkartekideen esanetan, Andoain indarkeriaren gaian herri hurbila eta sentikorra da; nolana ere, udalerrian arazo hori pairatzen duen emakumerik ezagutzen ez dutela esan digute, eta beren elkarteek antolatzen dituzten jardueretara etortzen ez direla adierazi digute. Herri konprometituaren ikuspegi horrek, ikerketa honetan parte hartu ez zuten emakumeei zuzendutako hainbat ekintza ekarri ditu berekin. Egia da, halaber, teknikarien artean aldeak edo zalantzak daudela indarkeria-egoeren aurrean adierazpen publikoak egiteko moduari buruz, adierazpen horiek benetan erreparatzaileak gerta daitezten.

Ingurunearen erantzunari buruz emakumeek duten pertzepzioa askotarikoa da; baina, batez ere, beren kasua herrian ezaguna dela dakitenean, sentitzen duten deserosotasuna nabarmentzekoa da. Sentimendu orokor hori honela laburbiltzen du haietako batek: "Begirada horiek goitik behera botatzen dizkizutenean, badakizu zutaz ari direla, baina ez dakizu zer esaten ari diren". Bizilagunek batzuetan eskaintzen dieten laguntzarekin zer egin ez dakite, eta laguntza eskatzen ere ez dakite, oso premiazkoa denean izan ezik; hala eta guztiz ere, esperientzia txarrak izan dituzte, eta horregatik, ez dira inguruneaz fidatzen.

Haietako batek kontatu duenez, senarrak kalean jotzen zuen bitartean, inork ez zion lagundu. "Jendea pasatu zen nire ondotik, dena ikusi zuten eta aurrera jarraitu zuten". Emakume horren begietan, bere ingurunea erasotzailearen konplizea da, inork ez baitzuen esku hartu nahi izan, inork ez zuen geldiarazi, bera itotzen ari zen bitartean. "Eraso larri bat ikusten duten pertsoez fidatu ezin bagara", amaitzen du neskak, "ezin gara inor fidatu".

Beste emakume batek, aldiz, gogorarazi du bere auzoan oso erne ibili zirela pasatzen zitzaionaz, behin salaketa jarri ondoren. Auzoan txikitatik ezagutzen zuten eta bazekiten bere bizitza oso zaila izan zela, horregatik uste du arduratzen zirela bere egoeraz.

Egia esan, emakumeengandik afektiboki oso urrun dagoen komunitate batek ez daki oso ondo zer egin, eta emakumeek ere ez dakite oso ondo zer eskatu komunitate horri. Elkartasuna kontzeptu abstraktua da, eta laguntza zehatzetan zehaztu behar da, gertakariei buruz galdetzea beharrezkoa ez bada ere. Agian, auzo seguru bat izan daiteke ziurtzat jotzen duena auzoan biktimak bizi direla, eta bizilagunek errazagoa dute erasotzaileari interpelatzea biktimei baino.

Laguntzeko, jakin beharra ere eraikuntza kolektiboaren parte da. Zehaztu behar dago zer jakin behar den eta zer jakin nahi den eta zertarako. Biktimen intimitatea zaintzea lan nekeza baina beharrezkoa da, eta ildo hori bera da Udalak hobekien landu dezakeena. Nola? Indarkeriaren biktimak ez estigmatizatzeke neurriak hartuz, haien eskubideak urratzean lapurtu dizkieten eskubideak berreskuratzen lagunduz, eta erasotzaileek ondo ikasita daukaten zigorgabetasuna eta gizonen pribilegioak ezbaian jarriz.

4.4. Erakundeen laguntza

Indarkeria-egoerak zirela-eta erakundeen aldetik jasotako laguntza emakumeek baloratzen dutenean, askotariko balorazioak topatu ditugu. Laguntza eske joan zirenean, erakundeen aldetik jasotako laguntza handia izan zela adierazi digute haietako batzuek; beste batzuek, ordea, esan digute laguntza gutxi jaso zutela edota erakundeen aldetik gaizki tratatuak sentitu zirela.

Haiak guztiek gaizki baloratzen dute laguntzak jasotzeko izapideen moteltasuna, batez ere dirulaguntzen eta etxebizitza-laguntzen kasuan; eta eremu judizialean izandako esperientzia ere gaizki baloratzen dute. Gizarte zerbitzuei buruz, oro har, ondo hitz egiten dute; hala ere, baten bat ez dago ados aplikatu zioten larrialdi izapidearekin, eta beste batek dio zerbitzuen arteko jarraipena eta koordinazioa hark berak bultzatu behar izan zuela, zerbitzuak berak baino.

Prozesu judizialari buruz egiten duten balorazio txarra alde batera utzita, oro har erakundeek babesten dituztela sentitu dute, baina faltan botatzen dute izapideak azalduko dizkien eta unerik zailenetan sostengua eskainiko dien laguntasun figura hori.

Laguntasun informatua eskatzen dute, haien nahia ez baita mugatzen bakarrik ez egotera; erakundeengandik zer espero dezaketen eta zer ez duten espero behar ere jakin nahi dute; horrek guztiak nola funtzionatzen duen azal diezaietela eskatzen dute, propagandan azaltzen dena ulertzea zaila delako edo hasieran izan ohi ez dituzten ezagutzak behar direlako.

Bere burua zaurgarriagotzat jo eta babes osoa jaso duela adierazten duen emakumearen azalpena deigarria da, bere kalteberatasun egoerari eta pilatuta zeuzkan arazoei egotzen baitie horren guztiaren azalpena, hain zuzen. Zaurgarritasunak exijentziak baino laguntza handiagoa eragiten duelako izango da? Litekeena da hala izatea, oraindik ere laguntza handiagoa ematen baitzaio biktima jakin bati, bere eskubide urratuak itzuli behar zaizkion beste bati baino.

Eraso fisiko larrien biktima izan ziren emakumeek esaten dute zerbitzuak azkar mobilizatu zirela haiei laguntza emateko, eta hortik ondoriozta dezakegunez, gaur egun dauden baliabideak gai dira egoera larriei erantzun azkarrak emateko; hala ere, larritasuna gutxituz doan heinean, eta, emakumeek eskatzen duten laguntza-mota aldatuz doan neurrian, biak bat datoz beren abandonu sententzia azpimarratzean, laguntza-sistema instituzionalak une premiazkoenetan bakarrik jakingo balu bezala nola erantzun.

Indarkeria psikologikoa eta indarkeriak uzten duen kalte psikologikoaren arrastoa hutsune nabarmenak dituen gai bat da, eta biktimei zuzendutako baliabide instituzionalek bete behar dituzte hutsune horiek. Eragindako kaltea konpontzeak denboran zehar luzatzen diren hainbat ekimen dakartza berekin, eta ekimen horiek emakume bakoitzaren beharretara egokitu behar dira; gainera, gaur egun egiten ez den jarraipen bat egitea eskatzen du horrek.

Azkenik, sektore pribatua aipatu behar da, hainbat emakumerentzat benetako oztopoa baita indarkeriatik ateratzeko. Arlo ekonomikoan, emakumeak oso ahul sentitu ohi dira; izan ere, gizonak, oro har, ezagutza handiagoa izaten baitute arlo horretaz (ia beti diru kontuez arduratu izan dira); gainera, banantze prozesuan emakumeek beste arazo batzuei ere aurre egin behar izaten diete, esaterako, kredituak eta hipotekak ordaintzeari, seme-alaben gastuei, eta abarrei. Presio tresna gisa erabili ohi da, emakumeek uko egin diezaioten salaketa jartzeari edo banantzeari.

Bestalde, gai honetan inplikaturik dagoen sektore pribatua lantzen hasi beharreko beste ingurune bat da, oztopo bihurtu daitekeelako emakumeak indarkeriazko bizipenetatik

indartuta atera daitezzen (pobretuta eta bikotekide ohien indarkeriaz zigortuta ateratzeaz gain).

5. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

5.1. Ondorioak

MAILA INDIBIDUALA: ARLO PERTSONALA ARLO POLITIKOA DA

Indarkeria matxistaren biktimei zuzendutako erreparazio prozesuak errehabilitatzaileak eta sendatzaileak izatea sustatzen du Andoaingo Protokoloak. Hori lortzeko, beharrezkoa da, diziplinarteko koordinazioa ziurtatzeaz gain, zerbitzu psikologiko, polizial, juridiko eta sozialak ondo ekipatuta eta prestatuta egotea, baita gune irekiak izatea ere (genero indarkeriari buruz eta sexu erasoei buruz dauden aurreiritziak eta estereotipoak gune horietan baliogabetuta egon daitezzen).

Maila indibidualean, helburua honako hau: biktimek indarkeria matxistarik gabeko bizitzak eraiki ahal izatea, baina baita —eta batez ere— beren bizipenetatik eta beste biktima batzuen bizipenetatik ikasitakoaz elikatzea ere, kolektiboki antolatutako ahalduntze prozesu pertsonalen bitartez, eta, pairatutako indarkeriak emakumeei urratu dizkien eskubideak interbentzioetan zehar berreskuratzea bilatuz.

MAILA KOLEKTIBOA: TALDEKAKO JABETZA

Andoaingo Protokoloaren arabera eta EUDEL gidaren arabera (2021), antzeko esperientziak izan dituen emakume talde bateko kide izatea, berez, esperientzia sendatzailea da. Maila kolektiboan ere, biktima babesten lagunduko duten ekimenak bultzatu behar dira, eta, aldi berean, komunitateak bere gain hartu behar du erasoan aurrean esku hartzeko ardura. Aldez aurretik adierazi dugun bezala, indarkeria matxistak betikotu eta normalizatu egiten dira harreman sozialetan; hori dela eta, jarduketa-ardatz hori —ikerketa honen printzipio gidaria ere badena— ezinbesteko estrategia bihurtu da.

De la Cuestaren arabera (2018), erreparazio prozesuak eskatzen du biktimek baliabide sozialak izatea, eta zehazki, beharrezkoa da parte sentitu daitezkeen elkarteak eskura

izatea eta **ahalduntzeko eta parte hartze kolektiborako guneak** sustatzea (bertan sendatu daitezten, aintzatespen propioa lor dezaten eta **erreparazio kolektiboa** aurrera eraman dezaten). Ildo horretan, aurreikusten den estrategietako bat Emakumeen Etxeak abian jartzea da, biktima diren eta bizirik atera diren emakume taldeak sortzeko eta aterpetzeko edo/eta indarkeria matxistarekin lotutako elkarteei ikusgarritasuna eta botere kolektibo bat emateko.

Izan ere, gizarte zerbitzuetan eta Andoaingo Ahalduntze Eskolan, talde ekimenak jarri dira abian, talde horietan hainbat eta hainbat gai lantzeko, besteak beste, harrera, autokontrola, erregulazio emozionala, gertaera traumatikoen lanketa, zailtasunen errekonozimendua, etab; gainera, indarkeriaren azpian dauden elementuak ulertzen saiatzeko, lan psikohezitzaile bat ere egiten da.

MAILA PUBLIKOA: KALEEN JABE EGITEA

Maila publikoan, ezinbestekoa da zerbitzuen eta suspertze prozesuetan parte har dezaketen gizarte eragileen arteko egituraketa on bat egotea. Andoaingo protokoloan, EUDEL gidan (2021) eta Barretoren ikerketan (2018) adierazten den bezala, eremu horretan funtsezkoa da **erreparazio sinboliko eta soziala** bilatzea, hau da, biktimei eta bizirik atera diren emakumeei aintzatespena eta legitimitatea ematea.

Kasu honetan, erakundeak jarrera aktiboa izan behar du, hori beharrezkoa baita kontakizunak, diskurtsoak eta irudiak sortzeko, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren erabateko gaitzespen sozial eta instituzionala sustatzeko, eta lanerako eta lankidetzarako sareak eratzeke. Andoaingo Protokoloak eta EUDEL-en Gidak honako neurri hauek planteatzen dituzte:

- ✓ Biktimen kontakizunak eta bizipenak jendaurrean aitortzea, esperientziak ikusarazteko kanpainak sustatuz eta udalerrian ekintza eta proiektu kolektiboak bermatuz eta antolatuz —bultzatzen daitezkeen omenaldiak eta funtsezko egunak (azaroaren 25ekoak, kasu) ahaztu gabe—.
- ✓ Kanpaina horiek esparru politikotik sustatzea eta giza eskubideen gaineko kontzientziazioa sustatzea garrantzitsua da. Langileek argi izan behar dute oso garrantzitsua dela emakumeei zuzendutako ekintza horiek sortzea, erasotzaileek egiten duten deslegitimazioa baliogabetzeko.

- ✓ "Berrito gertatuko ez dela" bermatzeko, beharrezkoa da indarkeriaren gaitzespena agerian utziko duen jarrera publiko bat egotea; halaber, beharrezkoa da erasoen aurka etengabe jarduteko konpromiso sozial eta politiko bat egotea; horrez gain, protokoloak sortu, erakundeen artean bitartekari lanak egin, emakumeentzako baliabide espezifikoak eratu, eta erasotzaileen aurkako neurri zehatzak hartu behar dira.

EUDEL gidan (2021), erreparazio sinboliko eta kolektiboko beste jardunbide positibo batzuk ere jaso dira (biktimen aldeko horma-irudiak, oroitzapen ekitaldiak, kale izendapenak), zeinetan bizirik atera diren emakumeek parte hartzeko aukera daukaten. Giza Eskubideen Gorte Interamerikarraren jurisprudentziak erreferentzia garrantzitsuak eskaintzen ditu indarkeria matxisten kasuen erreparazioari buruz; denak genero ikuspegitik planteatuta daude eta askotan ikuspegi interseksionala ere badute.

Azkenik, Sordok (2021) argudiatzen duenez, inplementatu nahi diren ekintza guztiek ikuspegi interseksional batetik pentsatuta eta diseinatuta egon behar dute, hau da, indarkeria desberdinak (indarkeria arrazistak, kapazitatistak, edadistak, e.a.) emakumeen eguneroko bizitzetan elkar lotuta egoten dira, eta beraz, erreparazio eta sendatzeko planteamenduek kontuan hartu behar dituzte.

Laburbilduz, suspertzeko eta sendatzeko estrategiak ezinbestekoak dira emakume biktimen eta bizirik atera direnen ibilbideetan laguntasuna eskaintzeko. Prozesu individual gisa ez ezik, ekintza kolektibo gisa ere ulertu behar dira, eta ekintza horietan herriko eta komunitateko bizilagunek hartu behar dute parte; bestalde, erakundeek sentsibilizazio eta prestakuntza-jardueren eta politika publikoen bidez ekintza horiek babestu behar dituzte.

5.2. Gomendioak

Ikerketa honen xedeari erantzunez, ezinbestekoa da erasotzaileei, haien eta biktimen familiei eta ingurune sozialei eta, oro har, herritar guztiei zuzendutako estrategia zehatzak diseinatzea, indarkeria matxistaren kritika soziala zabaltzeko eta sakontzeko eta emakume biktimentzat eta bizirik atera diren emakumeentzat erreparazioa eta suspertze gune informalak eta formalak/instituzionalak habilitatu daitezzen eskatzeko.

Alde horretatik, proposamen batzuk aipatuko ditugu jarraian:

- Indarkeriaren egoera biktimak berak ahalbidetzen duen ideia baliogabetzeko lan handiagoa egin behar da, edozein emakumeri eragin diezaiokeen indarkeria matxistaren izaera estrukturala azpimarratuz. Biktimak estigmatizatzea laguntza-eskaera atzeratzea dakarren faktorea da; beraz, arrisku elementua da emakume biktimen eta haien ingurunearen segurtasunerako.
- Biktimiek bizi dutena zergatik ez duten kontatzen edo salatzen galdetzen badiogu geure buruari, argi izan beharko dugu noraino sinesten diegun beren istorioa kontatzen digutenean eta zenbateraino normalizatu dugun indarkeria. Emakume biktimen barne fidagarritasuna ingurunetik indartzea indarkeria prebenitzeko mekanismo bihurtzen da; eta funtsezko faktore bat da, halaber, tokian-tokian haientzako espazio seguruak lortzeko.
- Biktima diren emakumeen isolamendua hausteak, esku hartzeko moduak birplanteatzera garamatza. Aitortu beharra dago, ezen, isolamendu horrek eragin handia izan duela biktimen funtzionamendu psikologikoan, eta eragina ere izan duela haien gaitasun operatiboetako batzuetan; beraz, indarkeria-faktoretzat eta zailtasun faktoretzat hartu behar da erantzun goiztiarrari begira, ekintza komunitarioak eta kolektiboak bultzatuz. Antzeko arazoak dituzten taldeak, martxan jartzeko eta garatzeko zailtasunak egon arren, funtsezkoak dira isolamendu hori hausteko.
- Biktimei eta haien zailtasunei buruzko narratiba, feminitateari forma ematen dioten portaeren ezaugarriak aztertzean eta desmuntatzean zentratu behar da: beste pertsona batzuekiko kezka eta zaintza; ezaugarri horiek behar bezala baloratu behar dira, eta, aldi berean, zalantzan jarri behar dira emakume ezaugarri gisa bakarrik naturalizatzen direnean, eta indarkeria matxistaren sensibilizazio eta prebentzio politiken xede izan beharko lukete, haurrak gizarteratzen hasten direnetik.
- Familien isiltasunaren fenomenoak sakontzen jarraitu beharreko aurkikuntza interesgarria da. Isilik eta isolatuta dagoen emakume batetik, familiako kide batek pairatu duen indarkeria ezkutatzeko duen familia batera pasatuko bagina bezala da (hala ematen du behintzat). Norbanakoaren lotsatik familiaren lotsara pasatzea sensibilizazio, prebentzio, arreta eta erreparazio politiken barruan landu beharreko alderdi bat da.
- Bereziki garrantzitsua da familietako amek eta adineko emakumeek beren alaben narratibak nola jasotzen dituzten berreskuratzea, indarkeria matxista

belaundiz belaundiz transmititzeko mekanismoak eta horiek desaktibatzeke moduak ikertu ahal izateko.

- Lagunak, beste emakume batzuk, dira leialtasun eta babes handiena erakutsi dutenak; hala ere, jasotako istorioetan ere erreferenterik urrienak dira. Emakumeen arteko liskar kultura sendoa eta "behin bikotekidea izanda, ez da lagun talde baten beharrik" ideia okerra, jorratu beharreko gaiak dira, ideia oker horiek zalantzen jartzeko eta emakumeen arteko laguntza-kultura alternatibo bat sustatzeko, bai eta sareak eratzeko ere, non berezitasunak eta desberdintasunak errespetatuko diren, baina, aldi berean, biktimen narratibak pitzadurarik gabe onartuko diren.
- Agerikoa da erantzun komunitarioa landu beharreko gai bat dela. Erantzun komunitarioari buruz emakumeek dituzten bizipen kontraesankorrek erakusten dutenez, sektore honetan gaia jorratu beharko litzateke, babesaren eta tartean sartzearen arteko oreka delikatuaz zainduz eta emakumeentzat arazo hori ezagutaraztea zeinen zaila den azalduz, are gehiago jakinda biktimak errudun sentitzen direla eta komunitatearen zati handi batek errua botatzen diela.
- Erakundeen arretan eta koordinazioan hobekuntzak egin behar direnez, arlo horretan lan handia egin da azken urteotan, baina estres handiko une batean bizi izandako prozesu motel eta ezezagunetan emakumeek egiten dituzten laguntza-eskaerak geroratu egiten dira oraindik ere.
- Bestalde, gai honetan inplikaturik dagoen sektore pribatua lantzen hasi beharreko beste ingurune bat da, oztopo bihur daitekeelako emakumeak indarkeriatik atera ahal izan daitezzen.

Proposamen orokorrago horiez gain, zenbait neurri zehatz proposatzen dira jarraian, inguruneak ziurtasunez jakin dezan senideei edo lagunei eskaintzen dieten laguntasuna modu egokian planteatuta dagoela.

Biktimen isolamendua ekiditea helburu duen Sonia Vaccaroren gidaren arabera ('Qué hacer si mi hija ha sido maltratada? Recursos para padres, familiares y amistades de mujeres jóvenes que han padecido —o padecen— violencia por parte de sus parejas'), ingurune hurbilak hau egin behar du:

- Biktima babestu
- Telefonoz ditu
- Arreta eman
- Oso presente egon

- Lagunen eta gertuko familiaren arteko sare bat sortu, eta txandaka, biktimarekin etengabe harremanetan egon.

Gainera, gidaren jarraibideak kontuan hartuta, ingurune hurbila osatzen duten pertsonen jokabide eta jardun batzuk adierazten dira:

Egin behar dena	Egin behar ez dena
Hurbileko pertsonetik jokabidean edo jarreran aldaketak adierazten dituzten seinaleen aurrean eta ageriko arrazoirik gabeko bat-bateko umore aldaketen aurrean erne egon.	Biktima epaitu edo errudun jo.
Genero indarkeriaren susmoa baieztatu edo gezurtatu ahal izateko, hurbileko lagunarteko norbaitekin hitz egin.	Biktimaren erritmoak azkartu.
Nola jokatu jakiteko eta informazioa eta argibideak lortzeko, genero indarkeriaren tratamenduan espezializatutako Laguntza Zerbitzu batera jo edo hara deitu.	Berak kontatu nahi ez dituen detaileez galdetu.
Bizi duen indarkeria-egoera kontatzea erabakitzen badu, biktimarengan konfiantza izan.	Tratu txarren emailea uztera edo salatzerara behartu.
Biktimaren erritmoak eta isiltasunak errespetatu.	Erasotzailearengana itzultzea erabakitzen badu, epaitu eta ez babestu.
Entzute aktibo bat izan.	Indarkeria-egoeragatik errudun ez sentiarazi.
Arreta espezializatuko zentroan berarekin egon, berak hala nahi badu.	Ahala bada, erasotzailearekin inolako solasaldirik ez izan.
Beste pertsona batzuk jakinaren gainean dauden egiaztatu eta haiekin harremanetan jarri.	
Laguntza-sare bat sortu.	

3. taula: Vaccaro S.ren gidatik (2016) egokitutako iturria. 'Qué hacer si mi hija ha sido maltratada? Recursos para padres, familiares y amistades de mujeres jóvenes que han padecido —o padecen— violencia por parte de sus parejas'.

Emakumeek kontatu dituzten narratibei buruz egin dugun azterketa oinarritzat hartuta, aurrekoa bezalako gidak prestatu daitezke, haien ingurune hurbilenak jakin dezan nola erantzun haien beharrei, eta, are gehiago, biktimek ere jakin dezaten zer eska diezaieketen.

ERREFERENTZIAK

- Aranda, M., Montes-Beges, B., Castillo-Mayén, M. R. & Higuera, M. (2014). Percepción de la segunda victimización en la violencia de género. *Escritos de Psicología*, 7(2), 11-18.
- Arévalo, L. (2010). Atención y reparación psicosocial en contextos de violencia sociopolítica: una mirada reflexiva. *Estudios Sociales* (36), 29-39.
- Barjola, N. (2018) *Microfísica sexista del poder: El caso Alcàsser y la construcción del terror sexual*. Virus Editorial
- Barreto, M. (2018). Testimonios de segunda victimización y reparación. Movilización feminista frente a un caso de violación sexual en la Universidad. *Revista Sexualidad y Salud* (29), 214-235.
- Bodelón, E. (2014). Violencia institucional y violencia de género. *Anales de la Cátedra Francisco Suárez* (48), 131-155.
- Bosch-Fiol, E. & Ferrer-Pérez, V. A. (2012). Nuevo mapa de los mitos sobre la violencia de género en el siglo XXI. *Psicothema*, 24(4), 548-554
- Cely, F. E. (2019). Memorias corporalizadas y credibilidad en mujeres víctimas de violencia. *Ideas y valores*, 58(5), 21-38.
- De la Cuesta, K. (2018). Revictimización: una práctica que debe acabar. *El Cotidiano*(209), 89-108.
- Delegación de Violencia de Género. Estadísticas, encuestas, estudios e investigaciones. Web gunea: <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/>
- Genero Indarkeriarako Gobernuaren Ordezkaritza (2019). Genero indarkeriaren biktima diren emakumeek beren egoera hitzez adierazteko behar duten denborari buruzko azterlana. Sarbidea 2022ko azaroaren 28an, hemen eskuragarri:https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/investigaciones/2019/estudio/Tiempo_Tardan_Verbalizar_Situacion.htm.
- Estébanez, I. (2021). De la culpa a la reparación. Un cambio en el mensaje simbólico hacia las mujeres. Reparación de violencia de género, 1-6 orr. Bilbao.
- EUDEL (2021). *Indarkeria matxistaren biktimak erreparatzeko tokiko jarduerak. Biktimei erreparazio printzipioa aplikatzeko gida didaktikoa*. Euskadi: EUDEL, Berdinsarea eta Emakunde.
- Gutiérrez, C., Coronel, E. & Andrés, C. (2009). Revisión teórica del concepto de la victimización secundaria. *Liberabit*, 15(1), 49-58.
- Iturbide, R., Amigot, P. & Covas, S. (2021). *Experiencias de mujeres en procesos de separación y divorcio. Un estudio sobre las dinámicas de poder masculino y*

violencias naturalizadas. Nafarroa: Nafarroako Gobernu eta Nafarroako Berdintasunerako Institutua.

Lagarde y de los Ríos, M. (2015). *Los cautiverios de Las Mujeres, madresposas, monjas, putas, presas y locas* (2º edición). México: Siglo XXI.

Núñez Puente, S.; Fernández Romero, D.; Farné, A. (2018). Comunicación, violencia de género y prácticas de resistencia: narrativas innovadoras para un cambio social, en *Teknokultura* 15(2): 185-192.

Olaizola, I. (2010). Violencia de género: elementos de los tipos penales con mayor dificultad probatoria. *Estudios Penales y Criminológicos*, XXX. alea: 269-316

Phelps Godwin (2004) *Shattered voices. Language, violence and the work of Truth Commissions*. University of Pennsylvania.

Rubio-Marín R. (2006). *What happened to the women? Gender and reparations for human rights violations*. International Center for Transitional Justice.

Sordo, T. (2021). *Prácticas de Reparación de Violencias Machistas. Análisis y propuestas*. Espainia: Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren ordezkariak.

Toledano-Buendía, C. (2021). Barrera lingüística y victimización secundaria: la (des)atención institucional a las víctimas extranjeras de violencia de género en España. *VERBA HISPANICA* XXIX, 175-191.

Vaccaro S. (2016). 'Qué hacer si mi hija ha sido maltratada? Recursos para padres, familiares y amistades de mujeres jóvenes que han padecido —o padecen— violencia por parte de sus parejas'. Hemen eskuragarri: https://www.uma.es/media/files/Violencia_Genero_Ficheros_guia_padres.pdf

Varela, N. (2017). *Cansadas: Una reacción feminista frente a la misoginia*. Barcelona: S.A Ediciones

Vázquez, N. (2017). Dimensión física y psicosocial. *Mugarik Gabe, Asfalto arteko Loreak* (47-79 orr.). Euskadi: Mugarik Gabe.

Violi, P. (1991). *El Infinito Singular*. Madrid: Cátedra Feminismos.